

Juan Jose Mogel

**EGUNOROKO
LAN-ON TA ERREGUBAK**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Bertsio elektroniko honen egilea: Josu Landa Ijurko.
Iturria: *Egunoroco lan-on ta erregubak Meza Santuba ondo entzuteco*, Vizcaico nequezalien adiquide batec.
José Basozabal-en Silluteguiyan, 1820.

<http://klasikoak.armiarma.com>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=548>

**EGUNOROKO
LAN-ON TA ERREGUBAK
MEZA SANTUBA
ONDO ENTZUTEKO:
KOFESINO ETA KOMUNINOIA**

Biar dan legez egiteko prestaera
eta zuzen-bidiak, etc , etc.

Emoten ditu argitara
Bizkaiko nekezalien adiskide batek

BIARDAN BAIEMONAGAZ.

BILBON: José Basozabal-en
Sillutegiyan 1820 garren urtian.

BERBA AURREKUA

Irakurla euskalduna. Liburutxu onetan aurkituko dituzu ikasbide, erregu, ta egikizun labur batzuk; eurak ondo egin ezkeru aberastu zinaike zeure arimia: ez aringa ta iraitzian legez irakurrita, ez pada astiro ta aitubaz, zeure egitada guztiak Jaungoikuagana zuzenduteko gogo eta borondate osuagaz. Liburu onak irakurriko balira biar dan legez, zenbat argitasun aurkituko genduke eurretan! Zenbat itsutasun eta arimako kalte zuzenduko litzate!

Ikasi zinaiz buruz erregu laburrak, eta esan sarri, baña ez miin utsagaz, ezpada biotz zintzo ta arima guztiagaz. Alperra da ezpanakaz errezetan egotia, baldin borondatia badago illa, eta gogua beste gauza baten.

Egizuz gauza guztiak arimako onera, eta aurrerapenak aterateko gurari osuagaz, ez oitura utsez eta nagitasunagaz. Lurreko ondasun laster igaroko dirianak irabazteko ain azkorrak izanik, zelan gara ain alper ta nagijak beti iraungo dabeen arimakuak billatuteko?

Liburu onetan ikasi daikezu zeure bizi moduba zuzenduteko biar dana. Artu neurriak zeure egikizun nai ta ezekuen kalte bage Jaungoikuagaz igaroteko denpora puska bat. Ez dauke guztiak era bardiña, eta Jangoikuak ez deutsa iñori eskatuten ezin daben gauzarik. Batzuk dauke eria egoteko gela zarratuko isiltasunian ordu osuetan orazinoian; beste batzuk ordu erdi edo ordu lauren baten, eta neurtu biar dau bakotxak bere eria al daben moduban. Leku guztietan jaso lei biotza Jaungoikuagana. Solo, baso eta sukaldeko lanetan; baita bere ume garrasijen artian; biar modu guztietan asko irabazi leite, eskini ezkeru Jaungoikuari geure neke, izerdi, eta arrastaka guztiak. Bakotxari eskatuko jako artu daben era eta argitasunaren kontuba. Geijago artu dabenak geiago zor dau; baña ez dago iñor zuzendu ezin leianik bere bizimoduba arimako ondasunak irabaztera. Albait sarritxuben konpesau; emon gorputzari neketxuren bat; jarraitu beti sendaro Jangoikuaren bidia, eta oneraspen edo debozinoiari. Ez ibili gaur bai ta bijar ez, arima epelen gisan. Bakotxak beretzat egiten dan ona edo txarra. Dongaro dabillenak, berak batuten ditu bera erretako egurrak, eta, ondo bizi danak irabazten dau betiko zorientasuna.

Au goguan ondo artu; igitu gauza onetara; iges egin bide donga eta galgarrijetatik. Igaroriko egunak, ez dira atzera etorriko. Usterik gitxien dogunian ebagiko da gure bizitzako arija. Eriotzia sartuko da lapurra legez; egin alegina ondo prestatu aurkitu gaizan.

Ai liburutxu onetatik aterako bazendu arimako onen bat! Argituko baziña Jangoikuaren ezagueran, eta zaletu iños amaituko ez diran atsegin gozuetara.

Alan egin daijala biotz guztien jaubiak.

GOIXEKO ERREGU TA ESKARIJAK

Goixian, iratzartu ta laster, Jangoikuagana biotza jaso, ta mesediak eskatutia, da Kristinaubak azturik euki biar ez daben zeregin edo lana. Emon egijozuz Jangoikuari egunaren asierak, diño S. Juan Klimakok, bada, zeñena dan lelengua, arena izango da guztija. Orretarako sartu zaite zertxubait zeure barruban, ta ikusirik zeure ezereztasun ta argaltasunak, azpiratu ta makurtu zaite bere anditasunaren aurrian, obato entzunak izan ditian zure erregubak.

ERREGUBAK

Jangoiko altsu, ta ezetan muga edo neurririk ez dozuna! zu zara bakarra iru Personatan. Aurkituten zara emen; ta leku guztijetan. Artu egizuz, bada, ontzat, neure biotzak egin al deutsuzan eskintsari guztijak. Gomuntaurik zure ontasunagaz, ez dakit zer esan neure esker gabetasunaren gañian. Zure errukijak nauka, gaur bere, bizirik, ta Infernuban ondatu

bagarik. Jauna! Zelan, ta zetan igaro ditut nik orain artian emon deustazuzan urtiak, jakiñarren, zenbatu edo kontaurik zeunkazala egunik laburrenak bere? Baña orregaitik, artu egizuz, abegi onagaz, gaurko nire eskintsari laburrak. Zuretzat, bada, nire gaurko berba, gomunta, neke, ta egitada guztijak. Ezarri eije-zu zeure dontsutasan edo bendizinoia izan ditian garbi ta zuzenak zure aurrian.

O Jesus laztana! Zu zara ontasan guztien ontasuna ta seme galduben Aita errukiorra. Zein irudi eder-rak itxi ez zeunskuzan zeure bizitza ta eriotza gogorrian? Lagun zakidaz, bada, alegiñez jarraitu daizudan garbitasun, umiltasun, baketasun ta leijaltasunian; azkenik, bardindu nadin gauza guztijetan Aita zerukuaren nai edo borondatiagaz.

Neure Jaun ta betiko jaubia: Zuk dakizuz nire premiña ta argaltasunak. Indazu, bada, sendotasuna neure arimako arerijuak goituteko, iñolan bere jausi ez nadiñ pekatuban. Batez bere eskatuten deusut laguntasuna daukadan utsegiterik andijena, ta griña edo pasinoerik bizijena goitu eragiteko, ta artuten dot asmo sendo bat berarizko alegin bat atan iminteko, ta neke edo penitenzijaren bat laster egiteko, alako utsegiteren baten jausten banas.

Jauna, ez zakidaz, arren, gaur estaldu neure begi-jetik. Egizu, ibilli nadilla beti zure aurrian, edo goguan zaitudala. Zu zara nire egilla jaube ta Jangoikua. Gomunta nadilla, bada, zugaz beti, ta leku guztijetan. Nire arimia; egizu alan. Ez zaitez aztu beragaz etxian, ta gogoratu egizu solo, baso, ta nun nai, leku guztijetan aurkituko dozun jaubia. Alan geituko da bere aurrian gauza onak egiteko gogua, ta pekatuban ez jausteko indar, ezek goituko ezin dabena.

Errezau egizuz: Aita geuria... Abe edo Agur Marija... ta Ni pekatarija...

Guztia daijan Jangoikua errukitu dedilla gugaz: ta parkaturik geure errubak, eruan gaizala betiko bizitzara. Bai, arren, bai.

ERREGUBAK ZERUKO ERREGIÑA, ZEURE AINGERU JAOLA, TA IZENEKO SANTUBARI

Jesusen ama, ta niretzat bere ama errukizkua: zure menpian jarten nas gaur, ta sartu gura dot zure egape gozuan. Erakutsi egizu nigaz, benetan zariana pekatarijen ama. Sendatu egizu nire argaltasuna, ta azkortu nagizu zure seme, ta neure Jesus maitiak emoten deustazan neke tu kurutzia ondo igaroteko. Lagun zakidaz orain, eta gero, ta batez bere eriotzako orduban.

Jangoikuaren ontasunak ni zaindu ta gordetako izentauriko Aingeruba: ekarri egidazuz, gaur gogoraziño onak, aldendu txarrak ta zaindu nagizu neure berba ta egite guztijetan, neure zenzun ta alegin osuagaz zuzendu nadin bere agindubak osaro gordetara.

Neure izeneko Santu andija, erregutu egizu, nigaitik. Izan zaite nire bitartekua Zeruban; ta egizu, jarraiturik zure bizitzako garbitasunari, alkarregaz beti izan

gaitiala geure egilla ta Jaubiaren gozotasunetan. Bai,
arren, bai. *Esan egizu biotzetik: Neure Jesu-Kristo
Jauna...*

GABERAKO ERREGUBAK

Egunaren asiera onak mesede andijak badakarz, ez ditu txikarraguak ekarriko ondo amaitutiak. Emon egijozuz eskerrak Jangoikuari orain arteko mesediak gaiti: eskatu egijozuz barriak aurrerako; ta egizu egun onetako arimako azterren edo examinia.

ESKERRAK JANGOIKUARI

Neure Jaun eta Jaubia: Zure anditasunak emoten deustan itzal ta lotsa santubagaz, azpiratu ta makurtzen natxazu biotz guztijagaz. Sinistuten dot zugar zarialako egija bera: Itxaroten dot zugar, zarialako mesede guztien iturburuba: maitetuten zaitut gauza guztien ganian, zarialako ontasun guztien ontasuna; maite bere ditut, zugaitik, lagun edo proximuak neure buruba legez. Baña, zer egin daiket nik zugaitik, egin deustazuzan meseden orde? Atera nenduzun ezerezetik: gorde nozu orain artian: biztu nenduzun zeure eriotziagaz, ta erosi zeure odolagaz; egin nenduzun Kristinau bautismo Santubagaz; ta begiratu deutsezu

nire utsegite edo pekatubei errukirik andijenagaz. Zerutaar zorijonekuak, arren, lagun zakidaze alegiñezko eskerrak emoten neure Jaunari.

ARGITASUNEN ESKABIDIA

Espiritu Santu, argitasun guztien iturburuba, desegidazuz neure arimia illunduten dabeen laño guztijak. Egizu, ezagutu daidazala neure erru ta deungaro egiñak, ta eureen ezaintasun izugarrija; gorrotau daidazan ezin geijago, ta gorde nadin aurreruntzian zure gogoko ez diran gauzaak egitetik.

EGUNOROKO AZTERREN EDO EXAMINIA

Aztertu egizuz, Jaunaren ta, Eleixiaren agindubetan, errukizko egikizunetan, ta zeure bizi modubari jaokazan arduretan, daukazuzan utsegitiak. Baita, Eleixan lotsa edo errespeto ona euki ezpadozu; berba alper edo barrerik egin badozu; errezu ta gauza onak nagitasunez itxi, edo ardura txarragaz egin badituzu;

*zeure arimako argitasun ta gurari onai jarraitu ezpa-
deutsezu: zenzun, ta griña edo pasinoiakaz zetan uts
egin dozun; saio edo juzgu txarrak errazto egiñ, ta
esakune zitalak egin edo gogoz entzun dituzun; iñoren
ondamu edo enbidijak, zeure buru eretxijak, edan
larregi ta gulerijak, tema, ta eztabaida alperrak etc.
guztijak dauke zer aztertu.*

AZKENEKO ERREGUBAK

Ara Jauna ni emen, guztijau lotsaturik, ezagutu ditudanian neure erru ta uts egitiak. Ori zan zor neutsun eskerra, ainbeste maite nozun Jauna? Ai, eta zeñ esker bagia izan nasan orain artian! Agertu daijela neure begijak malko ugarijakaz, neure biotzeko oñaz edo doloria. Busti ditiala, gau onetan, nire oeko izarak, Dabidenak legez damuzko negarrakaz. Eta zuk, Jaun guztien Jauna, errukiturik nire argaltasunakaz, sendatu egizu nire arimia, aldendu ez dedin geijago zure bide zuzen ta garbijetatik. Bai, arren, bai. *Esan egizuz, Aita geuria... Agur Marija... Kredo edo Sinismena... Ta Ni pekatarija...*

OERA ORDUKO GOMUNTAK

Oera nua, ta gorputz au berau eruango dabe egunen baten beste oe batera, zein dan obi edo sepultura. Eta nok daki, nun iratzartuko ete masan gau onetan? Ai, zenbat orain sendo dagozanak agertu biarko daben gau onetan Jangoikuaren aurrian! Eta, zer izango ete da nigaz, atarako izentaurik banago? Zer epai edo sentenzija izango ete dot? Ikaratu zaite neure arimia, gomunta onegaz! Presta edo gertutu zaite, bazenki legez, alan jazoko jatzuna. Onan egiñik, atseen ta lo egizu, Jaunaren izenian, premiña dozun adiñan.

Jaunaren dontsutasun edo bendizinoia izan dedilla nigaz, ta beste guztiakaz: zabaldu dedilla bere errukija Garbileku edo Purgatorijoko arimetara; ta bere ontasunak batu gaizala guztiok betiko gozotasunen Jauregijan. Alan jadtixi daigula zeruko Erregiñaren bitartez.

ASTE GUZTIKO EGUNETARAKO ONERASPEN EDO DEBOZIÑOIAK

Gizaldi guztietako ekandu edo oituria izan da kristianuben artian, asteko egun bakotxerako berarizko oneraspen edo debozinoren bat artutia. Zuri bere atarako, emen erakusten jatzu.

DOMEKARAKO IRUBATASUN EDO TRIÑIDADE TXITO SANTUBARI

Esker gozuak Aitari, bere eskubidiagaz ezerezetik atera, ta bere irudijan egin nendubalako. Esker gozuak Semiari, bere jakiturijagaz Infernuko kateiak urratu, ta Zeruko atiak edegi, eustazalako. Esker gozuak Espiritu Santubari, bere maitetasunagaz bautismuan dontsutu nendubalako , ta beti beraganik izan ditudan emokai edo grazija ugarijakgaiti. Esker gozuak, bai Irubatasun txito dontsuba, orain arteko

mesede guztijak gaitik. Gaurko eguna izan dedilla zure atsegin, ta nire arimiaren onerako.

ASTELENERAKO ESPIRITU SANTUBARI

Aita ta Semiaren maitetasuneko Espirituba, doe ta mesede guztien emollia; argitu egizu nire adiña, ta ixiotu nire biotza zure maitetasun gozuan. Egizu, zale-tu nadilla on guztira, gorrotau okerrera. Autor dot, sarri itsutu nasana zure argi santubetara: gogortu dodana biotza zure deijetara. Aurrera alan izan ez nadin, indazu eske nasana; ta gaurko eguna izan dedilla, zure izenian, nire bizitza obiaren axieria.

MARTITZENERAKO, AINGERU JAOLIARI

Neure Aingeru ona; eskerrak Jangoikuari zure ardura edo kargura imiñi nendubalako. O, zein mesedia, Zeruko Espiritu garbi, ta Jangoikuaren arpegija ikusten daben bat, beti neure zain eukitia. Zelan azar-

tu neinde pekatu egiten, zuk ikusten nozula, ta neugaz zagozala? Eta, ze arerijok goitu daike nire arimia, zugaz bategin ezkerok? Alkartu gaitian, bada, goiturik demonio malmutz, mundu laban, ta aragi nasaiguria, atara daidan beti betiko garaitza edo biktorija.

EGUBAZTENERAKO DONE JOSERI

Zeruko Erregiñaren Senar garbi ta Jesusen Aita ordezkua: nogana zuzendu neindeke, zugana baño obato, neure premiña ta esturasunetan? Neure Santu laztana: imini egizu zeure bitartetasun guztija pekatariori onentzat. Artu nagizu zeure semetzat. Indazu zure garbitasun, ta onoidade, onekandu edo birtutei jarraituteko indarra, bat eginik bizitza zuzenagaz eriotza ona artu daidazan zure bitartetasunaren betiko sariak.

EGUBENERAKO, SAKRAMENTU TXITO SANTUBARI

O, Jesus gozo, izentau zendubana gaurko eguna maitetasunaren sillurik andijenagaz! Nok esan, ez adierazo daike zure guganako etsigitasuna, geldituetian altarako Sakramentuban, gure janari, ta edari egiñik? Nok, bada, zu ontasun guztien ontasuna, maite-tuko ez zaituz gauza guztien ganetik? Nor, izanik zu gozotasun guztien gozotasuna, ainbat garbijen eginik, elduko ez da al-daben guztijan zure biotz orretara? Indazu, Jauna, zuganako egarri andi bat; eta zuriak ez diran atsegin guztijen gogo bete, ta gorrotua.

BATIJAKURAKO, JESUSEN ERIOTZIARI

O, Zeruko Billdots eder, ta orban bagia! Zure erio-tza ta odolagaz desegin gura dituzu gizonen pekatu-bak. Desegizuz, arren, laster niriak. Zu ill zinan ni biz-tute arren. Zelan, bada, neure guraz il daiket barrero neure arimia? Ez Jauna, ez. Zure eriotzia goguan artu-rik, ta zuri ondo erreguturik, ez dago goituko naberen arerijorik. Galduko dot, biar bada, bizitza labur au, zuriaren orde, ta beti zure seme zeruban izateko pozez.

ZAPATURAKO, AMA DONZELLA BAKARRARI

Donzella garbi, neure Jangoikuaren Ama, ta bera gaitik, Aingeru ta gizon guztijen lotsa, itzal, ta maite-tasunaren diñu zariana: natortzu zeure oñetan etzun ta auspaztutera. Zu zara pekatarijen Ama, ta ni, bene-tan zure biar nasana. Biurtu egizuz, bada, niganutz zure begi eder ta errukitsubok. Lagun zakidaz Erbeste onetako arrisku andijen artian, ta, zuzendu nagizu betiko atseginen kai edo portu zorijonekora.

ZENBAT MESEDE DAKARREN MEDITAZINOE EDO GOMUNTA ONAK AGERTUTIAK; ETA ONDO EGITEKO ERA EDO MODUBA

Jeremias Igarla santubak adierazoten dau argiro, zein mesede andiko gauzia dan meditazinoe edo gomunta oneen azterrena; bada, diño, alan ez egiña gaitik, pekatuz ondaturik daguala munduba. Onetara dator S. Buenabentura; erakusla andija, esanik, betiko egijak ez gomuntauba gaitik, sikatuten dala oneraspen edo debozinoia, otzitu arimako berotasuna, nasaitu oiturak; ta azkenik, griña edo pasiñoiak azpiratu ta goituten dabeela gizona. Baña baldin sendaro jarraituten bajake gomunta onei; guztija bestera, esan daikegu S. Teresagaz; au da, argaltasunen batzuk euki arren, aterako dabela Jangoikuak bide zuzen ta ziurre-ra. Orregaitik, zirautsan S. Franzisko Salesek Filoteari: arduraz egizu erregu gogo ta biotzekua batez bere Jesusen bizitza ta eriotziaren ganian, bada bere zauri edo llaga ondo aztertubak, dirausku S. Bernarddk,

diriala sendagarririk egokijenak gure arimakuak osatuteko. Ez daukagu, ziñuan S. Felipe Nerik, Demoniuak bildurrago jakon gauzarik, zeinda meditazinoe edo gomunta onen azterrena. Zaletu gaitian, bada, guztijok, ta ez, arren, egunik, igaro, ordu lauren edo erdiatan igaro baga. Ondo egiteko, artu laguntzat S. Jose ta S. Teresa, ta lurreko erakuslatzat, Konfesore jakitun, ta bera atan oituriko bat.

ARGITASUN BATZUK

Goixian euki gura badituzu gomunta onak, al izanik, irakurriko dozu lenagoko gabian, aztertu nai dozun gei edo puntuba, ta erabilliko dozu goguan luak artu arte, goixerako ondo prestau daizun. Irakurten ez dakijanak, bardin egingo dau, arturik goguan onduen deritxon gei bat.

Leku bakar ta ixilla da egokijena gomunta onak aztertuteko, baña atarako erarik ezpadaukazu, nun nai, ta biarrian zagozala bere egin daikezu. Gure arimia da Jaunaren etxe edo tenplu bizija, zenetan daukan imiñita bere atsegin edo gloriya: alan, biotzetik eskatuten deutesenentzako, daukaz beti edegirik bere

errukizko belarriak. Adanek egin zituban erregubak atseginezko ortuban, Josek presondegijan, Job Santubak korta bazterrian, Danielek leoien artian, Jonasek Baleiaren barruban, ta S. Inesek nasaikerijarako izentauriko lekuban.

Goixa ta gaba dira une edo denporarik onenak gogo ta biotzeko erregubak egiteko; bada, orduban oi dagoz zenzunak batu ta bake obaan: baña onetan bere, baktxak begiratu, nos, ta ze era daukan, bada, Jaunak; nos nai entzungo dau ondo erregutu ezkeru.

Ardura andi bat imini biar da onelako erregubetan, ta egin nagitasuna kendutera; baña alegin zenzuneko edo errazoezko bat da asko. Ondo daki Jangoikuak, zein argala dan gure gomuntia, ta zein laster iges egi ten daben batetik bestera. Jangoikuak begiratuten dau biotzeko gurari edo intenzinoera.

Erregubetarako gei edo punta baten aurkituten badozu biotzeko batutasun edo poza, ez bestetara igaro, ezpada, irabazi ateratera andik al dozun irabazi edo frutuba. Baña otzitzen bazara, igaro zaitekez beste gei edo puntura. Orretarako, erregu aldi bako xerako artu daikezuz gei edo puntu bi, edo iru.

Egizu alegiña biotzeko bakia gordetako, ta ez eztututeko. Euki egizu borondate ona; ta gomuntau

egizu arretaz edo sosieguz ez ibilli indarka legez buru-
ba ausi, ta zeu nekatuten; orrelako baga emongo dau
Jangoikuak biar dana, ta ez egizu billatu biar ez dana.

Ondo da sarri gauza baten gañian erregubak egi-
tia. Jesusek bere iru bidar egin eban erregu bat ortu
santuban. Lelenguan ez dana, gero jadisten da. Alan
Kananeiak erregu askogaz jadtixi eban bere alabiaren
osasuna.

Erregubetan asi orduko, begiraturik zeure premi-
ñei, erabagiko dozu zer mesede edo frutu atera nai
dozun: esaterako; eruapen edo pazienzijaren premiña
dozu andijena? bada, eskatu beti bera, ta gogorazinoe
guztijak zuzendu mesede au ateratera. Ebanjeliuak
aitatuten daben itsubak eskatuten eutsan Jesusi argi-
ja, bere ustez, aren premiñarik andijena eukalako.
Gauza bat jaditsirik, eskatuko dozu beste bat, ta alan
egingo zara onoidade edo birtute guztien jaube. Ez
dira errazak aldabatera saill asko; banaka, guztijak
landuten ditu nekezale biargiñak.

Ez arren sinistu, ez dogula azpiratuko griña edo
pasiñoeren bat; edo, ez dogula jadtixiko onelako onoi-
dade edo birtuteren bat. Begira Jaunaren ontasunari,
zeñen eskubetan dagozan ontasun guztijak. Gomun-
tau, zeñ maite zaituban, ta azkortu eskatuteko. Guz-

tija dakus, guztija dantzuz, ta isten bazaitzuz, nosbait, illunpian, da zure itxaropen edo esperantziak geijago irabazi daijan.

Gogo ta biotzeko erreguben bidia, ez da guztientzat bardiña. Batzubentzat da argija, beste batzubentzat illuna, ta jarraitu egijozu pozik Jangoikuak izentau deitsunari. dalako bera oneena zuretzat. Arima asko bildurtu oi dira larregi illuntasunetan, ez ezagutuba gaitik Jangoikuak andik deituten ditubala. Jarten dira erregubetan, jatorkez esetsi edo tentazinuak, gomunta alperrak; aztuten jakez artu zituben gomunta onak, otzituden jake biotzeko samurtasuna, ezin aztertu dabe nai leuken geija, ezin samurtu dabe gogua; ta diñue euren artian: Ai, alperrak dira gure erregubak, ez dogu beste gauzarik egiten une edo denporia galdu baño. Ara emen Diabrubak arimei iminten deutseen saria erregu edo orazinuari itxi eragiteko. Ez, arren, sinisterik emon arerijo geisto ta aseoa jakiñari. Aurrera, aurrera, erregubetan, bizitza labur onek dirauban artian. Jarraitu sendo; orain illun, ta gero txito argija zeruban izango dan bidiari. Orain liorra dirudijan biotza, izango da gero gozatuba. Sikubak dirudijen erregubak, sarritan, dira indartsubaguak Jangoikuaren aurrian, malko ta samurtasunez betiak baño. Baldin

liortasun orreek badira zeure erruzkuak; edo konfesoriarri obeidu eza gaitik, gorputzari leen baño era alpergeijago emona gaiti, edo, astija eukirik, zeure guraz laburtu dituzulako erregubak, kendu laster eragozpenak. Baña, baldin obeiduten badeutsazu konfesoriarri, biotzak gura badau ondo egitia, prest bazagoz gorputza eziteko aginduten jatzun giñuan, ta ezpadituzu zeure buruz laburtu erregubak; ez bildurtu; bada, sika-te gustiagaz irabaziko dau asko zure arimiak.

BIOTZAK EGIN BIAR DITUBAN ERREGUBAK, ILLUN TA SIKU ARKITUTEN DANIAN

Badazaut, Jauna, erruba daukadana, ta begiratutia bere zor ez deustazuna: baña, zer dauke zer ikusi nire pekatubak Jesusen irabazi edo merezimentubakaz? Imiñi bitez, alde batetik nire geistakerijaak, ta bestetik Jesusen odol tanta bat, ta emen agertuko da, nundik jatortan niri zugana zuzenduteko indarra. Ez, bada, begiratu niri, ezpada zure Seme Jesus nigaitik kurutzian josijari.

Jauna, zabaldu nai badozu zeure errukitasuna, ara ni eske, ta premiñaz beterik. Argaltasun, ta utsegitiak, estaldurik legez dauke nire arima geixua. O, zein azpiratuba dagan zuk ainbeste maite zendubana! Agertu zakidaz laster, ta erakutsi egizu nigan zeure biguntasuna.

Jauna; zuk egin daikezu nai dozun guztija. Nik egin al baneu nai dodana, oraindik guztijau zuria izango ninzate. Pozik emongo neuskezuz neure biotz, arimia, ta nasan guztia. Artu egizuz, bada, nire gurarijak, ta edegi niretzat zure ontasunaren iturri ugarijak.

Neure Errege ta Jaubia; ez deustut zor deustazulako eskatuten, ezpada ona ta emollia zarialako. Zure ondasun neurri bagaak ez dira gitxituko niri emon arren eske nasana. Mesede billa nas, ta ez daukat zegaz erantzun, zeure ontasunagaz beragaz baño.

Ai ene! Zer da neure ariman igaroten dana? Nun dira nire leengo poz, argi ta samurtasunak? Adiña illun, biotza lior, ta neure Jaubia agiri ez! O, ze bakar-tadia! Bete nau garraztasunez ta asenzijuaren mingoxtasunak sartu dira nire arima barruban. Diadarrez nago, ta ez nozu entzun gura. Nos artian egongo da negarrez nire arima geixua, gau illun onetan, ta zu gogorturik beretzat?

Gozatu zaite neure arimia; gozatu zaite. Atseen egizu Jesusen kurutzian. Zenbat ta geijago igaroten dozun erbeste onetan, ainbat atsegin geijago izango dozu Jerusalem betikuan. Begira, ze kaliza garratza edan eban Jesusek zugaitik. Ta, zegaitik edango ez dozu zuk puska bat bere izenian? Ea; artu indarra. Igaroko da gaba, ta: urtengo dau eguzki argijak. Guztija da emen laburra, ta laster dator Zeruko eztegubena unia.

Egizu, bada Jesus, nai dozun guztija nijaz. Badakit maite nozuna, ta zure eskuban isten dot neure boron-datia. Zure arantzak, ultze, ortu santuko illuntasunak, etc. izango dira neure naibagiak igaroteko artuko ditudan pozgarrijak. Bada, zu alan ikusirik, zelan billatu nei atseginik? Baña sendatu egizu nire argaltasuna.

ZER DAN, TA ZELAN EGINGO DAN GOMUNTA ONEN AZTERREN, EDO MEDITAZIÑOIA, EDO BIOTZEKO ERREGUBA

Gomunta oneen azterren edo meditaziñoiak ez dau eskatuten berba ta azaleko gauzarik, ta egiten da

arimako almenakaz, zeintsuk diran, gomunta edo memorija, adin edo entendimentuba, ta borondatia. Erregu au da, diño S. Franzisko Salesek, Biotzetik biotzera, Jangoiko ta gizonaren arteko berbakunztza bat, bere agindupian bizi, ta maitetutiaren gañian.

ZELAN EGITEN DAN

Jakiñik Jangoikuagaz berba egitera zuazala, bizturik fede edo sinistia, gomunta zaite bere anditasun, edertasun etc. ta izan arren zeu aiñ argala, aurkituten zariala bere aurrian, ta azpiratu edo umilldurik esan egizu.

ERREGUBA

O , Jangoiko altsu ta neurri guztiez gañetikua! Zu, niri bejira, entzuten, ta mesediak eskintzen! Izanik ni sarri Infernuba irabazi dodana, zelan jarriko nas zure aurrian? Aingerubak ikaraz; Aitaleen edo Patriarka santubak auzpaturik, ta orregaitik deituten nozu zeugana? Indartu egizu, bada, nire biotza, ta entzun egizuz bere zizpurubak, ta leleengo, pekatuben damubak

erasoten deutzazan berba oneek: *Neure Jesu-Kristo Jauna etc.*

ARGITASUNEN ESKABIDIA

O, Jangoiko, Espiritu Santubaren argitasunagaz duntsutu dituzuzana zeure menpeko edo serbitzarijen biotzak; bete egizu bere doez nire arimia: argitu egidazuz neure gomunta ta adina, ta ixiotu nire biotza maitetasun edo amodijo bizijaren subagaz. Egizu, azkenik, Jesus zeure Seme laztana gaitik, entzunak izan ditiala nire erregubak, ta Espiritu a bera izan dedilla beti nire argija, indarra, ta atsegiña.

EGIERA EDO EGITEKO MODUBA

Erabagirik zer gauzaren ganian gomuntau ta erre-gutu gura dozun, artu egizu leleengo zeure goguan bere irudi bat. Irudija gomuntan artutia, da begitandutia geure goguan, zerbait ikusten bagendu legez. Alan ekarten dogu gogora, nai dogun guztijan, ezagun baten itxuria, bera ikusten ez egon arren. Bardin, bada, egingo dozu gomuntau ta erregutu nai dozun gauziagaz. Esaterako: gura dozu, izan dedin zure gomutia Jesusen azoten gañian? Bada, iruditu egizu zeure goguan bere itxura bat pillar bati lotuta; egizu, ikusten bazenduz legez borreru gogorrak; entzuten bazenduz legez azoteen otsak; begira bazengoz legez bere solbarda odoldu ta zauritubei. Irudi oneen gañian gomuntau edo pensau egizu ondo datorren guztija: nor alan aurkituten dan, ta nor gaitik zelan maite zaituban Jesusek, ta zer egin dozun zeuk bera gaitik zein astuna dan pekatuba, ta zelakua zure eskergabetasuna etc. etc. Onelako gomuntakaz dendatuko zara biotza igitu edo mobietara mesede edo frutu onak aterateko: edo pekatuben gorrotua, edo Jesusen maitetasu-

na, edo umiltasuna etc. etc. egingo dituzuz erregu bizijak, eskiniko zatxakoz Jesusi, ta eskatu batez bere, zeuk biarren dozun onoidade edo birtutia, ta beste mai dituzun premiñak gaiti.

Ikasi ezkerro gauza baten gañian erregubak egiten, zeurez ikasiko dozu beste gauza askoren ganian egiten bere. Ez da beti premiñazkua irudija goguan artutia, ta gei batzuben gañian irudirik artu bere ezin lei. Konfesoriak emongo deutsuz atarako argitasunak, ta niretzat asko da esatia, biotza dala nagusijena, ta ez daguala bera bagako erregu egiazkorik.

ERREGUBEN AMAIRAKO ESKABIDIA

O, neure Jaun eta, Jangoikua! Errukiz beteriko Aita! Artu egizuz ontzat nire erregubak; ta parkatu, euki ditudan oztasun ta utsegitiak. Indazu zeure laguntasuna artu ditudan asmo edo propositu onak gordetako. Dontsutu egizu nire arimia, Jakobena bere aitak legez, azi ta geitu dedin beti Zeruko doietan: eta zubek, arima zorijoneko, Aingeruzko talda ederrak, ta guztien erregiña neure ama maitia, izan zakidaze

bitarteko mesede oneek jaristeko. *Aita geuria, ta Agur Marija etc.*

Ezagaturik, ze gomuntak geijen igitu deutsun biotza erregubak egin dituzanian, egizu ainbat sarrijeen bera goguan erabiltera egun atan. Esaterako: *O Jesus! Zu, nigaitik ain erituba; ta ni zugaz ain aaztuba!*

* * *

Liburu askotan aurkituko dituzuz gei edo puntu ederrak, zeren gañian gomuntau ta erregubak egin: baña beste libururik ezpazeunka bere, ara emen gei labur batzuk.

I. ZETARAKO EGIN ZITUBAN JANGOIKUAK GAUZA GUZTIJAK

Gauza guztijak egin zituban Jangoikuak, gu leijal ta esker onekuak beretzat izan gaitian. Lurreko patarijak , itxasuetako arraiñak, egaan dabiltzan txorijak, zeruban dakuskuzan eguzki, illargi, ta izarrak, eskintzen deuskubez gomunta ugarijak ezagututeko bere anditasuna, ta guri ondo naija. Zein andijak izan biar

daben, nai utsagaz, ta ezer ezetik, edertasun oneek atera zitubanak! Zelakuak bere guganako maitetasunak, ainbeste ondasunen jaube egitian, ezer zor ez euskula! Ondo zirautsan S. Agustinek: *Jauna; gauza guztijak diadar ekiten deutse nire biotzari zu maitetuteko*. Oitu zaite, bada, zu bere alan eskerrak emon, ta maitetuten gauza guztijen egilla ta emollia.

Emendik atera daikezuz mesede txito andijak, sarri ta leku guztijetan Jangoikuagaz gomuntau ta maitetuteko. Basuan, dakutsuz arbola, lora, bedar ta pistija mota asko; soluan, laboriak; nun nai, agertuten jatuz txoritxubak, ta sarri iratzartuko zaitube eureen egun sentiko soñuban; begiratuten badozu, itxaso ta bere olatu ta gora beretara; eguzkira, ta berak mundu guztira zabalduten daben argi nai berotasunera, daguala beti, bere baten, ez azi, ez txikitu baga, ta dabilela egun bakotxian esan ezin beste milloe legua; azaldau nai badituzu illargi, izar, trumoe, oñaz-tarri; euri, edur, txingor, arri, ta nos, ta nun nai aurkituko dituzun Jaunaren egitada arrigarrijak aurkituko dituzu, bai ugari, bera maitetuteko gomuntagarri egokijak. Oitu, bada, arren onetara. Gomuntau, nok, norentzat, ta zetarako egin zituban.

II. PEKATU ERALLA EDO MORTALAREN GAÑIAN

Begira, zelan Jangoikuak bota zituban ainbeste milloer Aingeru betiko susko leza edo infernura pekatu bat gaitik. Begira, zelan atera zituban Adan ta Eba atseginezko ortu edo Paraisutik pekatu bat gaitik, gedituten zirala demoniuaren mendian euren ondorengo guztijakaz. Begira, zelako eriotza gogorra artu eban Jesu Kristok gizoneen pekatubak gaitik. O, zein ikaragarrija dan Jangoikuaren gorrotua pekatubagana-ko! Arima geixua: jausi zara pekatuban? Agur, bada, zeure Jan- goikuaren maitetasuna; agur zure edertasuna; agur zure Zerurako eskubidia; ta agur zorijoneko ta Aingerubak zu euren lagun izateko euren poza. Saldu deutzazu arimia Luziferri, ta zagoz bere mendian. Zure arimia aurkituten da demoniuen itxusitasu- nagaz jantzirik, ta uste bagako eriotziaren zain dago beti betiko euren lagun izateko. Emendik atera biar da pekatubaren gorroto izugarri bat, ta gogo sendua bizitzia ta gauza guztijak galduteko pekatu egin baño lenago.

III. ARIMIAREN GAÑIAN

Arima bat daukat ta besterik ez: bera galduten badot, zer izango da nigaz? Arima au da Jaunaren irudija, ta inos amaituko ez dana. Zeruba da bere betiko errija, irabazten badau munduban garaitza edo biktorija. Nok egingo ez dau onetan alegiña? Baña, ai, askoren itxutasuna! Denpora laburreko ondasunak gaitik ainbeste arrastaka egiten da: gorputz ustela gaitik ainbeste ardura iminten da, ta zer egin dozu orain artian zeure arimia, ta bere betiko ondo izatia gaitik? Ai, zein aztuba bizi izan nasan biarren nebana-gaz! Ez nas izango alan onik aurrera. Ez, neure Jangoikua lagun dodala.

IV. NOR BERAREN EZAUGERIAREN GAÑIAN

Nor nas ni Jangoikuaren anditasunaren aurrian? Eta orregaitik azartu nas pekatu egiten! O, lotsa baga kerija! Berak emoniko egunak ta urtiak igaro ditut beragaz aztuta; baña, O, bere eruapen edo pazienzija!

Oraindik emoten deust bizitzia. Zer diñozu neure arima geixua? Zer egingo dozu onik aurrera? Ai, neure Jesus maitia, negar egingo dot neure orain arteko itxutasuna, ta billatuko dot onik aurrera zure biotzian neure betiko atsegiña.

V. ERIOTZIAREN GAÑIAN

Erabagirik dago gizon guztijen eriotzia. Ill biar dabe erregiak; ill andikijak; ill soldadubak; ill gazte, ta zarrak. Neuk bere ill biar dot, baña ez dakit nos, nun, ta zelan. Gorputz au izango da aarren janarija, ta bere antz, ta itxuriak iguinduko ditu urreratuten jakozan guztijak. Agur, orduban, betiko, lurreko pozkerija, adiskidetasun, ondasun, ta atsegin guztijak. Beraz, ondo itxuba da euretan bere zorijontasuna iminten dabena. Billatu daiguzan, bada, eriotziak kenduko ez deuskuzan ondasunak.

VI. ZEIN LABURRAK DIRAN LURREKO ATSEGINAK

'Umekerijaan duaz urte batzuk, esaterako, bizi ezpagaña legez: Zartza errukarri batek daruaz beste urte batzuk: luak, ez gitxi. Gaztetasuna dua kerizia legez, ta ez guztiz negar baga. Gaur nago arroturik, neure itxura ta apaindurijei jagirik. Uste dot maite nabela mundubak, ta egijaz egiten deust abegi ona, bere jolas, olgantza ta atsegiñetan: baña ze laster nire egunak geitu, ta lora argala legez sikaturik, beste bat jagiko dan nire lekuban, ta arentzat izango dira olgantza, abegi on ta atsegiñak, ta niretzat eureen betiko agurra. Niretzat egin ta eragin nituban pekatubak, arimako illuntasuna, keska, ta larritasunak. Niretzat mundubaren burla ezaguna. Niretzat pekatubaren sari zorigaistokuak. Niretzat, ai... Ez Jauna. Argitu begi nire arimia, ta billatuko ditu betiko ondasunak.

VII. AZKENENGO JUIZIZO EDO ERABAGIJAREN GANIAN

Izentaurik dauka Jangoikuak; nos izango dan ez dakigun egun bat , zeñetan su ikaragarri batek kixkalduko dituban bazter guztijak. Orduban diadar egingo dau Aingeru nagusi batek, *jagi zaiteze illak, ta erdube*

erabagi edo juiziora. Bistuko gara Adanen seme alaba guztijok, ta etorriko da Jesu-Kristo Aingeru taldaz inguratuba ta itzal edo Majestadez betia. S. Migelek ekarriko dau Jesus josi ebeen kurutzia. Edegiko dira gure arimetako liburubak, ta agertu gure pekatubak. Azkenik, arima onak igongo dabee Jesusegaz betiko atsegiñeen Zerura, ta geistuak, luurra edegirik, iruntsijak izango dira betiko susko lezara; atan erabagiko dabelako Jesus zuzen ta artezak. Begira, zer izango ete dan zugaz grima gaixua.

VIII. GAUZA ONI JAOKAZAN GOMUNTAK

Askok egin oi ditube pekatubak, edo mundubaren on eretxiz, edo nor baiten itzal, lotsa, ta bildurrez: beste batzuk oi daukeez autortu edo konfesau baga lotsa au berau gaitik. Ai, mundubaren ta mundukuen bildur zarian arima errukarija! Ai, ta millabidar ai! Zer izango da zugaz askenengo egun izugarri atan? Deiturik zuri Jesusek bere edertasun ta anditasunaren aurrera, zerutaar, mundutaar, ta diabru guztijak bere an dagozala. Zelan agertuko zara Aingerubak ikara

egiten deutseen Jaunaren aurrera? Zelan egongo zara, urten daijenian argitara zure utsegite edo pekatubak? Ai, gomunta onetan sarri dendatuko bagina! Ta, zelan botako litzatian mundukuen bildurra pekatu-rik ez egitia gaitik.

IX. BETIKO SUSKO LEZA, OXIN EDO INFERNUBAREN GAÑIAN

Infernuba da, Jangoikuaren axerriak gizonen eskergabetasunarentzat prestatuak daukan oxin edo leza ikaragarri bat. Da naibage mueta guztijen tokija, ta atsegiñen izpirik ez daguana. Ez dago zegaz bardinduango suba.

Munduko karobija, laba gori, ta oñastarriak, ez dira su aren, keriza batzuk baño. Eta, zelako amorruba izango ez da, jakitia ziur, beti beti an egon biarko dala? An, onik milla urte, an andik millinoien millinoiak urte, ta an beti iraunian? Neure arima geixua. Norako ete zara betiko? Begira pekatu-rik ez egitian, ta lenakaz ondo damututian. Ez da izango, ara jausi eskero, iños jagiterik.

X. GAUZA ONI JAOKAZAN GOMUNTAK

Susko leza betikuaren gomuntia, berez da txito bildurgarrija, baña arinduko litzate bildur au, baldin gitxi baño ezpalira bertara duazanak. Baña, baldin adiñera eldu ezkeren ilten diranen artetik, geijeen geijenak badira, betiko galduten diranak, noragiño igon biar ez dau gure ikariak? Itxirik, bada, alde batera, alan dirauskuben Eleisako erakusla ta Santubak; ara zer diñuan Jesu-Kristok berak: *Zabala da atia, ta nasaija galdutera garuazan bidia, ta asko, sartuten dira andik; estuba da atia, ta zuzena bizitzara garuazan bidia, ta gitxi dira billatuten dabenak*. Bada, gitxi badira zeruko bidia billatuten dabenak, billatuten ete dozu zeuk? Jarraituko ete deutzazu ate estutik sartu artian? Bildurtu zaite, bada, ta Apostolubak diñuan legez, dendatu zaite bildur ta ikariagaz betiko zorijontasunak irabazten.

XI. ZORIJONEKUEN ATSEGIN EDO GLORIJAREN GAÑIAN

Ez miiñak esan , ez belarrijak entzun, ta ez adiñak aitu daike, zelangua dan zeruko edertasuna, ta arima zorijonekuak dauken atsegiña. Iruditu egizuz asmau alako ikuskizun ta gozotasunak, baña ez dirae izango zerukuen keriza labur bat bere. Egijaz, zelakua izango ez da ango edertasuna, baldin Jesu-Kristo bera bada eguzkija, Maria illargija, ta milloien milloiak Aingeru ta zorijoneko izarrak? Zelakua izango ez da ango atsegiña, baldin Jangoikuaren jartoki, ta Bildotsagandik urtetten badau S. Juanek ikusi eban gozotasuneko ibaijak , zein dan Espiritu Santubaren atsegin, zeru guztira zabaldu, ta gozotasun ta pozkerijaz betetan dabena? Gomunta oneek ondo egiñaz artuko dozu Zeruba irabazteko gurari bizi bat, ta ez iños aldentuteko bide zuzenetik lurreko atsegin, ta jente arruen burla ta esamesaak gaitik.

JESUSEN NEKE, EDO PASINOIAREN GAÑIAN ORTU SANTUBAREN GOMUNTIA

Begira, zein larri ta ikaratuba aurkitu zan Jesus, ta zelan zure pekatubak atera eutseen odolezko izerdija. Biotza illun, zeruba astun, ta naibagez inguraturik, zuri erakuste arren pekatubaren astuntasuna, ta emon biar deutsun naibagia.

BELARRONDOKUAREN GAÑIAN

Begira, zelan gizaseme gogor batek, Anasen etxian, belarronduan jo ta ezarri eban Jesus lurrera. Alan erakusten deutsu otzan, edo manso izaten, ta bidebagetasunik andijenak biotz onagaz igaroten.

KAIFASEN ETXEKO LOTSARIJAK

Emen asmau eutsezan Jesusi txito guzur asko, ta emon lotsari andijak. Eztalirik bere arpegi ederra, joten ebeen, burlaz zirautsela: *igarri eijozu nok jo zaituzan*. Emen ukatu eban Pedrok. Ikasi egizu, bada, zuk bere igaroten munduko burla ta lotsarijak Jesusi jarraitutearren.

AZOTEEN GOMUNTIA

Eralla edo borrreru gogorrak, adikatu edo kansau artian, zauritu ebeen Jesusen gorputza. Ama maitia eguan begira, ikusten zitubala azotiak kenduten eutsezan aragi zatijak. Zer egingo zenduban aurkitu baziña bere onduan? Lagun zakijoz, bada, orain, zeure Amatzat arturik, ta jarraitu eijezu, bere onoidade edo birtute garbije.

ARANTZAZKO ARO EDO KOROIARENA

Erruki bagako gizonak sartu eutsen Jesusi buruban, garunetatik barrura, arantzazko aro, edo koroe gogorra. Alan irabazi eban zuretzat, benetan dendatuten bazara, zeruko atsegin ta edertasunez beterikua. Begira, galdu ez daikezun, Jesusek ainbeste nekegaz eskintzen deutsuna.

KURUTZE ASTUNAREN GOMUNTIA

Jesus laztana, erdi odolusturik, ortozik, arerijoz inguraturik, kurutze edo lauburu astuna lepuan dabela, or jausi, ta emen ostikadaz jazo, dua Kalbarijoko mendira. O, Jesusen guganako maitetasuna! Ta, o, gure pekatuben astuntasuna!

JESUSEN, ERIOTZIAREN GOMUNTIA

Iru ordu osuan, kurutze edo lauburuban ultzez joserik, agonija larri ta lotsari asko arturik, il zan Jesus lapur biren erdijan. Eriotza au artu eban zuri betiko bizitzia emote arren. Begira zetan erosi zenduzan! Beria zaitu alde guztijetatik, ta bizi biar dozu beretzat.

Alan egiten ezpadozu, O, eta zelan bere odolak eskatuko daben zure betiko madarikazinoa!

JESUSEN BIZTUERA BARRIJA

Irugarren egunian biztu zan Jesus illen artetik. Ez dago zegaz adierazo bere edertasuna. Zelakua izango ez zan bere ama ta ikasla guztien poza, alan agertu jakenian? Poztu zaitte Jesusi jarraitu nai deutzazun kristinauba; bada, zuk bere ikusiko dozu egunen baten, arpegiz arpegi, Jesus biztuba, zein dan atsegin ta edertasun guztien iturburuba

JESUSEN ZERURA IGOERIA

Agindurik Jesusek bere ikaslei, ez zitubala umezurtz itxiko, ta bai, bialduko eutsela Espiritu atsegin

emollia, igon eban, biztu ta berrogeigarren egunian, zerubetara. Zelako argitasunak eruango ez zituban beragan, Aingerubak zurturik legez ziñuenian, *nor da, ain atsegin edo gloriya andijetako, Errege au?* Ai, zein atsegin andija izango dan beti beti beragaz egotia! Egizu, bada, alegiña, ta jaritxiko dozu alan izatia.

ESPIRITU SANTUBAREN ETORRERIA

Jesusek zerura igon, ta amargarren egunian, Apostolu ta beste kristinau asko erregubetan apaltokijan egozala, aixe mueta batek sartu eban ain ots andija, zeinda, ikaraturik Jerusalem guztija, urten ebeen jentiak zer ete zan ikustera. Beingo baten, jatsi ziran zerutik susko miin batzuk, ta jarri Apostolu, ta beste kristinauben buru gañetan. Gelditu ziran beriala guztijak jakiturija ta doez beterik. Ordu atan jente talda andijak sinistu ebeen Jesu Kristogan. Jarraitu, bada, erregubei, zeruko doe ta argitasunak jaristeko.

IRUBATASUN TXITO SANTUBAREN GOMUNTIA

Ez palitz Jangoikua gizonak aitu al leijen baño geijago, ez litzate Jangoiko izango. Alan, berak erakutsi ezpaleusku siniste edo fediaeren bitartez, guztiz gitxi jakingo genduban bere anditasunaren gañian. Gure

zenzun illun ta argalak ezin aituko eban iños Jangoiko bat iru personatan, ta iru persona Jangoiko bakar baten. Baña, berak erakutsi deuskun ezker ezkuta-pen edo misterijo andi au, gozatu gaitian Aitaren altsutasunian, Semiaren jakiturijaan, ta Espiritu Santubaren maitetasunian, autorturik beti Jangoiko bakar bat.

ALTARAKO SAKRAMENTU TXITO SANTUBAREN GAÑIAN

Jesus, zeruko Bildots ederra, gelditu zan altarako mai dontsuban eztalirik ostijiaren zuritasunaren barruban. O, ze janari, ta edarija, ondo pretaurik elduten danarentzat! Zelako goxe ta egarrijagaz juan biar ez genduke mai santu atara? Ai, neure arimia! Zein zori-joneko egin gura zaituban Jesusek!

JANGOIKUAREN LEKU GUZTIJETAKO EGOERIA

Ez dauka Jangoikuak muga ez neurrik, ta aurkituten da nun nai, edo leku guztijetan. Leku guztijetan aurkituten danak, guztija ikusten dau. Biotzik sakone-nak, gaurik illunenak, gelarik ixillenak, basamorturik ezkutukuenak, guztijak dira argijak beretzat. Emendik atera daikezu sendotasun andi bat esturasunetarako,

Jakinik zeugaz daukazula indar guztien jaubia: Emendik gauza onak egiteko gogua, gomuntauurik begira daguala sari guztijen emollia: ta emendik pekatubaren bildurra, zerren ikusten zaituban betiko Juez edo Erabagizalliak. Ondo diño S. Agustinek: *aurkitu egizu Jan-goikuak ikusiko ez zaituban leku bat, ta, egizu pekatu.* Ondo ekijan aurkituko ez zana. Bada, zelan azartu bere begijen aurrian pekatu egiten? Ez, ondo gomuntetan bazara. Gomunta onetarako artu daikezuz gei asko, Aita geuria, Agur Marija, Salbe edo Jainkuak gorde zaizala, ta beste erregu edo orazinoietatik. Baita bere imini gura deutsudaz emen esakune labur batzuk, errazto buruban artu daikezuzanak, sarri goguan erabilteko, ta ondo gomuntetako.

Negarrez jaijo, ta agertu nintzan mundura, jakin baneu legez, nentorrena erbeste, ta leku arrots galdu-ra.

Lurrian aurkitu nai dabenak zorijontasuna, esan lei galdu ditubala, siniste ta zenzuna.

Alperrik nekatu zan, Salomon erregia, atseginakaz bat egiten, arimako bakia.

Ez gaitian erotu, arimako kaltian, munduko seme alabei, sinisterik emotian.

Ariña ta ezer eza, da emengo atsegiña, barriz bere azkena, txito garratz miña.

Egunak ta gabak , sentitzaka duaz, laster dabe amaitu, uste baga gugaz.

Zar edo gazterik, ez dakigu zelan, sartuko gaituben luur barruko gelaan.

Guztia usteldurik, gure aragija, laster izango da, arren janarija.

Sarritan dakusku, begijen aurrian, ez da zer itandu, beraren gañian.

Zetako bada egin genduzan gu Jaunak, emen ukaturik zorijontasunak?

Biztu sinistia, kristinau maitia, ta aztertu ondo, zeure izatia.

Arima bat dozu, iños ez ilteko, Jaunagaz zeruban beti izateko.

Jaunaren bildurrian, bizi gura badozu, beti izango zara, zorijon ta dontsu.

Atsegin andijetan, Aingeru artian, gozatuko zara, Jaunaren aurrian.

Atarako zu egin zenduzan Jaubiak; beragaz gura gaitu, Adanen semiak.

Alegin osuagaz, dendatu gaitian, bertara zuzenduten, bizitza guztian.

Asko dira nagijak, alegin onetan, ez dira ez sartuko, zeru ederretan.

Belu ezaguturik, geure uts egitiak, ez ditu aterako, negar egitiak.

Jaunaren axerriak, azpijan arturik, atsegiñen ondoren beti amorraturik.

Neure Jaun maitia, lagun egidazu, bide onetan beti zuk gorde nagizu.

Zugaz bizi gura dot, zugaz izateko, atsegin txarrak itxi, zugan aurkitzeko.

MARIA TXITO DONTSUBAREN ONERASPEN EDO DEBOZINOIA

Zaletuteko guztiz Kristinauben biotzak Aingeruben Erregiña ganuntz, asko izan biar leuke jakitia Espiritu Santubak beragaitik diñuana: *Ni aurkituten nabena aurkituko dau bizitzia, ta aterako dau osasuna Jangoikuaganik.* Ondo dirausku, bada, S. Atanasiok, egokijago jatorkola Mariari bizi guztien amaren izena, Ebari baño; bada, izen au bajatorkon emakume oni emon euskulako bizitza argal bat, askoz obato jatorko Mariari, zeñek jaritxiko deuskun betiko atsegiñen bizitzia beragana egijaz zaletuten garian guztijoi. Esango deusut bada, S. Anselmo, ta S. Buenabenturagaz, Maria-gazkua ezpadaukazu, galduba zara; baño artuten bazaitu bere egape edo anparuban, aterako dozu garaitza edo biktoria. Begiraturik, Jaunaren ontasunak, erbeste negargarri onetako arrisku andije, itxi euskun amarik bigun ta errukiorrena, gorde gendizan bere bitartetasunez, euretan jausi ta galdu baga. Ai, zein amatasun biarra! Erakutsi eutsan, bein, Jangoikuak San Antonio Abatari munduba, alde guztijetatik demoniuaren lakijoz erinda eguala arima geisuak kati-

gatuteko: ta au alan izanik, nor etsigiko ez da ama maitiagana, gura ezpadau galdu betiko? Baña, zein gitxi diran ama onen benetako maitiak! askok, errezen batzuk egin, edo biotzeko samurtasunen bat sentietan badabe bere gomuntiaz, pekatuban egon arren, uste dabe dirala bere adiskidiak. Baña, zelan izango zara Mariaren adiskide, Jesusen arerijo bazara, ta bizi gura badozu pekatuban? Ain laztanak izanik ama semiak, edo bijakaz izango zara adiskide, edo bijakaz axerre. Aurkiturik infernu edo sulezia guzurrezko oneraspen edo debozinoez beterik legez, argitu gura dot orain, zer dan oneraspena.

Oneraspen edo debozinoia da, diño Sto. Tomas Eleisako erakusla andijak, Jangoikuaren naija egiteko borondate prest bat. Alan, esan biar dogu, Mariaren oneraspena dala, bere gogoko gauzak egin, ta gogoko ez diranak isteko borondate presta. Bere naija da, Jangoikuaren agindubak gordetia, garbitasun, ta onoida-dei jarraitutia; ta bere gorrotokua, pekatu egitia, ta bide nasaijetan ibiltia. Baña, esango dau nor baitek; beraz pekatu mortalian daguana ezin izango da Mariaren deboto, edo oneratsi? Zetarako, bada, esaten jako pekatarijen ama? Au ondo aituteko, jakin biar da, pekatari mueta bi aurkituten dirala. Batzuk, pekatu

egin, ta pekatu ta pekatuko bidetarik urteteko gogorik ez daukenak. Onelakuak ez dauke inola bere Mariaren oneraspenik, ta gau ta egun errezetan egon arren, negar muxingak egin arren, euren errezubak ez dauke txillinaren otsak baño indar geijago. Errezuben ta oneraspenaren pozagaz, bizi gura oi dabe Jangoikuaren bildurragaz azturik, ta dagoz diabrubak itxuturik betiko madarikazinoien bidian. Beste batzuk jausi dira pekatuban, baña benetan, ta ainbat lasterren urten gura dabe, ta itxi gura ditube pekatuko bidiak. Onelakuak, izan ez arren jatorriz ta eskubidez Mariaren deboto edo oneratsijak, dira bai, ama onen errukitasunez. Alan agertu eutsan berak S. Brijidari, zirautsala; *Ni nas pekatari zuzendu gura dabeneen ama*. Oneek itxaron daike bere laguntasuna, biurtuteko laster, galdu ebeen arimako edertasunera.

Mariaren oneraspen edo debozinoia geituteko, laguntzen dau txito asko, bere egunetan konfesau ta komulgetiak; bada, dauka atsegin andija ikusten bere aukerazko seme alabaak, bat eginik, komuninoeko mai santuban, bere erraijetako seme Jesusegaz. Baita bere lagunduten dau asko, artutiak bera geure amatzat, egiñik geure biotz ta arimako eskinsari osua. Au egingo dozu, lenaz pretaurik, bere egun baten, kon-

fesau ta komulgarik, ta barristau, edola bere, astian
bein: ara zelan egin.

ESKINTSARIJA

O , esakune guztiez gañetiko zero ta lurren Erregi-ña! Zure edertasuna da Aingeruben poza, ta zorijoneko guztien atsegiña. Ez dauke neurrik zure eskubiak, zarialako guztia daijan Jesusen ama. Baña izan biar dozu nire ama bere, zerren Jesusek, kurutziaren oiñian zengozala, izentau zenduzan, zeugana egijaz batu gura eben pekatari guztien amatzat. Banator, bada, zugana, Eba garbija. Banator, Ester ederra. Zuk izan biar dozu nire ama, ta nik zure seme edo alabia. Eskintzen deusut neure biotza, arimia ta nasan guztija. Gozatuko nas zure besuetan, ta zure egapian gordeko nas munduko arriskubetatik. Begira, arren, errukiz niri. Ez itxi esetsi edo tentazinoietan, lagundu esturasunetan, zuzendu egite ta ibilbide guztijetan, bada nik aginduten deusut, neugan dan guztija egiteko, Jesusen bidei jarraitu ta pekatukuetatik aldenduteko. Baña, zer nas ni bakarrik? Zu zara, bada, nire uste edo esperanzia. Zu nire indarra. Alan, zuk, neure ama maitia, zuzendu biar deustazu Jesusen odolagaz erosiriko arimatxu au betiko zeruko Sion zorijonekora. Alan izan dedilla.

ESKAPULARIJO SANTUBAREN GAÑIAN

Zeruko Erregiñak berak agerturiko oneraspen eder bat da; Karmengo eskapularijo santuba. Sartu zaiteze, bada, gogo garbi ta prestaera onagaz Kofradija edo anaetasun onetan. Imini egizube alegiña, itundurik Konfesorragaz, irabazteko bertan dagozan parakamen edo induljenzija ugarijak. Erabilli egizube, arren beti, egunaz ta gabaz, bularrian Eskapularijo Santuba Mariaren irudi edo estanpiagaz: Ai, zein asmo egokija au, geure ama maitia sarri goguan eukiteko! Zein asmo adiutuba, pekatubari bildur ikara audi bat artu, ta beti garbi izateko! Bada, gomuntaurik geure bularrian daukagula geure ama garbijaren irudija, zelan azartu ginandez pekatu egiten? Edo kenduko genduke soñetik pekatubari leku emon orduko, baña, nor azartu leite onetara? Barriz, baldin arima galdu ta zorigaistokoren batek, eskapularijo santuba aldian euki arren, artuko baleu pekatuban jausteko ustia: O, zeruko Aingeru ederrak! artu laster, zeuben aldetik Erregina garbijaren izen on, edo honria. Kendu egizube beriala kristinau lotsa galdukuari bere irudi ta

eskapularijua, ta agertu egizube zor jakon itzal ta lotsa santuba. Begira, bada, eskapularijo santuba soñian, ta pekatu, aragijaren labankerija, mundubaren aixe zoro, arrotasun, jolas, dantza ta bide nasaijetan bazabiltz: begira diñot, zer, nor, ta zelan darabiltzuben, ta zer lotsa dakarkijozuben. Ai, ze axeria jausiko dan egunen baten zuben gañera! Baña, o egun aaztu edo gitxi gomuntauba!

ERROSARIJO SANTUBAREN GAÑIAN

Ara emen zorijoneko oneraspen kristandade guztijan zabaldurik daguana. Daukaz amabost ezkutapen edo misterijo, eurretan gogo ta biotza egon ditian, errezetan dogun artian. Bada, jakin egizu, miin utsagaz egiten diran errezubak, dirala berba alperrak, zeintzubeekin ez dan ezer irabazten, galdu baño. Eta, O, Zenbat errezu alper ta gatz bagako egiten dan gure artian! Ez egizu zuk alan egin, ta bai biotzagaz batera, ta dagozan parkamen edo induljenzijak irabazteko gurari bizi bategaz.

EZKUTAPEN EDO MISTERIJO GOZATSUBAK ASTELEN TA EGUBENERAKO

I. JESUS GIZON EGIN ZANEKUA

Ze poz ze atsegiña

Zure biotzian

Maria artu zenduban

Jesus sortutian.
Aita geuria, etc.

II. MARIJA, ISABEL IKUSTERA, JUAN ZANEKUA

Jaunaren ama zara
Dirautsa Isabelek
Poza autortuten dau
Saltoka Juanek.
Aita geuria, etc.

III. JAIJO ZANEKUA

Ama, zure biotza
Jesus ikusirik,
Zelan gelditu izan zan
Pozez ill bagarik?
Aita geuria, etc.

IV. AMA DONZELLIA ELEIXAN SARTU ZANEKUA

Emen Simeon zarrak
Jesus laztandurik
Pozezko malkuakaz
Zaukaz gozaturik.
Aita geuria, etc.

V. JESUS TENPLUBAN AURKITU EBANEKUA

Nun zan zuk ez jakinik

Tenpluban zeunkana:

Aurkitutako poza

Zabaldu gugana.

Aita geuria, etc.

ESKUTAPEN SAMIN EDO DOLOREZKUAK MARTITZEN TA BARIJAKURAKO

I. ORTU SANTUKO ERREGUBARENA

Odolez izerturik

Jesus auzpaztuba.

Zelan aurkituko zan

Ama saminduba?

Aita geuria, etc.

II. JESUSEEN AZOTEENA

Jesusen gorputzeko

Azote gogorak

Ikaratzen ditubez

Amaren azurrak.

Aita geuria, etc.

III. ARANTZAZKO ARO EDO KOROIARENA

Garunak igarota
Arantza gogorrez
Jesus, ta Ama begira
Urturik negarrez.
Aita geuria, etc.

IV. KURUTZIA ERUATIARENA

Gurutzia lepuan,
Jesus ortozturik,
Amak beti darraiko
Ezin aldendurik.
Aita geuria, etc.

V. KURUTZIAN JOSTIARENA

Josirik ikusita
Jesus Kurutzian
Zer jazo zan Maria
Zure biotzian?
Aita geuria, etc.

ESKUTAPEN ATSEGINSUBAK DOMEKA, EGUBAZTEN, TA ZAPATURAKO

I. JESUSEN BIZTUERA BARRIJARENA

Irugarren eguna
Jesus biztu zana
Illaren amarentzat
Au bai atsegiña.
Aita geuria, etc.

II. JESUSEN ZERURA IGOERIARENA

Jesus Zerura dua
Maria laztana,
Zure poz atsegiña
Zabaldu gugana.
Aita geuria, etc.

III. ESPIRITU SANTUBAREN ETORRERIARENA

Poz ta atsegin barrijak
Zuretzat Marija
Espiritu Santuba
Dalako etorrija.
Aita geuria, etc.

IV. MARIAREN ZERURA JASOERIARENA

Aingeruben artian

O, ze atsegiña!

Zerura jaso dabe

Betiko Erregiña.

Aita geuria, etc.

V. MARIARI ARO EDO KOROIA IMINTIARENA

Eder inguraturik

Amaren buruba,

Geuri deiez daukagu,

Ester apainduba.

Aita geuria, etc.

KIRIELEISONAK EUSKERAZ

Jauna, errukija gugaz.

Kristo, errukija gugaz.

Jauna, errukija gugaz.

Kristo, entzun gagizuz.

Kristo, aditugaizuz.

Aita Jangoiko Zerubetakua.

Errukia gugaz.

Seme Jangoiko Mundubaren Askatzallia.

Errukia gugaz.

Espiritu-Santu Jangoikua.

Errukia gugaz.

Irutasun Santu Jangoiko bakarra.

Errukia gugaz.

Done Maria

Erregutu gu gaiti.

Done ama Jangoikuarena,

Erregutu gu gaiti.

Done Donzella Donzellena,

Erregutu gu gaiti.

Kristoren ama,

Erregutu gu gaiti.

Jangoikuaren emokaijen ama,

Erregutu gu gaiti.

Ama txito garbija,

Erregutu gu gaiti.

Ama txito Kastia,

Erregutu gu gaiti.

Ama Donzella,

Erregutu gu gaiti.

Ama loi bagia,

Erregutu gu gaiti.

Ama orban bagia,

Erregutu gu gaiti.

Ama maitagarrija,

Erregutu gu gaiti.

Ama miragarrija,

Erregutu gu gaiti.

Egilliaren ama,

Erregutu gu gaiti.

Zeru emolliaren ama,

Erregutu gu gaiti.

Donzella txito jakit egokija,

Erregutu gu gaiti.

Donzella itzalekua,

Erregutu gu gaiti.

Donzella erakuslagarrija,

Erregutu gu gaiti.

Donzella altsuba,

Erregutu gu gaiti.

Donzella errukiorra,

Erregutu gu gaiti.

Donzella leijala,

Erregutu gu gaiti.

Zuzentasunaren ikuslekuba,

Erregutu gu gaiti.

Jakiturijaren jarlekuba,

Erregutu gu gaiti.

Gure pozaren sustraija.

Erregutu gu gaiti.

Ontzi espirituala,

Erregutu gu gaiti.

Ontzi onragarrija,

Erregutu gu gaiti.

Ontzi argi oneraspenekua,

Erregutu gu gaiti.

Larrosa asko esangurakua,

Erregutu gu gaiti.

Dabiden Torrea,

Erregutu gu gaiti.

Marfilezko Torrea,

Erregutu gu gaiti.

Urrezko etxia,

Erregutu gu gaiti.

Utxa bakegilla,

Erregutu gu gaiti.

Zeruko atia,

Erregutu gu gaiti.

Egun sentiko Izarra,

Erregutu gu gaiti.

Gaixuen osasuna,

Erregutu gu gaiti.

Pekatarijen bitartekoa,

Erregutu gu gaiti.

Larri-estuen pozkarrija,

Erregutu gu gaiti.

Kristinauben laguntaria,

Erregutu gu gaiti.

Aingeruben Erregiña,

Erregutu gu gaiti.

Aitaleneen Erregiña,

Erregutu gu gaiti.

Igarleen Erregiña,

Erregutu gu gaiti.

Apostolubeen Erregiña,

Erregutu gu gaiti.

Martirijen Erregiña,

Erregutu gu gaiti.

Autorgillen Erregiña,

Erregutu gu gaiti.

Donzellen Erregiña,

Erregutu gu gaiti.

Santu guztien Erregiña,

Erregutu gu gaiti.

Jatorriro pekatubaren orban bagarik sorturiko Erregiña.

Jangoikuaren bildots, munduko pekatubak kentzen dituzuna.

Parka eiguzu Jauna.

Jangoikuaren bildots, munduko pekatubak kentzen dituzuna.

Enzun gaizuz Jauna.

Jangoikuaren bildots, munduko pekatubak kentzen dituzuna.

Errukia gugaz.

Zure mendera gatoz Jaunaren ama dontsuba, entzun egizuz gure erregubak, ta gorde gaizuz arrisku guztijetan Donzella garbija.

*Erregutu gu gaitik Jaunaren ama dontsuba.
Izan gaitian Jesusen eskintsarijen duin.*

ERREGUBA

O, Donzella ta Ama bakarra! O, zeruko doe guztien iturburuba! Eskini egizu, arren, gu gaitik zure garbitasunaren ugaritasuna, ta egizu, goiturik arerijo guztijak, gozatubak izan gaitiala zugaz betiko atsegiñetan. Alan izan dedilla.

KURUTZETAKUEN EGIN BIDIA

SARRERIA

Leleengo, belaunbikoturik, zeñatuko zara, ta esan biotzetik Neure Jesu-Kristo Jauna.

ESKINTZEKO ERREGUBA

Neure Jesus laztana, agertu nai neuke nolabait zuganako leijaltasuna, jarraiturik gaur zure Kalbarioko oñatz edo pausubei. Egizu, bada, irabazi daidazala onetan dagozan induljenzija edo parkamen guztijak. Erregututen deusut atarako Eleixiak erregututia gura daben premiña guztijak gaitik, ta niretzat zure bide zuzenei beti jarraituteko argija.

Munduban gozatu ta
Jesusi jarraitu
Izango ezin dana
Daigun ezagutu.

Neke ta kurutziak
Burla ta barriak
Sarri izango dituz
Jesusen semiak.

LELENGO ESTAZINOE EDO EGOTALDIJA

Eriotzako epai edo sentenzija gogorra

Kurutzian ilteko
Jesus Maitiak
Zer egin ete dau
Neure jentiak?

*Gomunta zaite orain, ez eukala Jesusek beste
errurik gure pekatubak bere gañian artutia baño.*

ERREGUBA

O, neure Jesus! Beraz zu, entzunik Pilatosek emon daben eriotzako epai edo sentenzija, jakin arren niria zala erru guztija, zagoz ixil ixillik! Zer egin daiket, bada, nik orain? Baña zer egingo dot zu baga, izanik ni ain argala? Indazu, arren, zukanako leijaltasuna, ta

neke ta kurutze guztijak zure izenian igaroteko indarra.

Beti amaituko da onan.

Aita geuria etc. Abe Marija etc., ta Gloria etc.

Gero. Jauna, errukitu zaite pekatarijakaz. Guztijak esango dabee. Jesusen kurutze ta eriotzia, izan dedilla guretzat betiko bizitzia.

BIGARREN ESTAZINOE EDO EGOTALDIJA Jesusi Kurutzia imini eutsena

Kurutze astunagaz
Jesus makurturik,
Zer diñozu, bazagoz
Zeugan arroturik.

Gomuntau egizu emen Jesusen umiltasuna, arturik zugaitik kurutze astuna bere solbardaan.

ERREGUBA

Zeruko bildots otzan edo mansua: nora zuaz kurutze astun ori lepuan dozula? Zek zarabiltz ain azpira-

tuba? Eta zu olan ikusirik, zelan ez dauke nire begijak negarrik? Samurtu ta ezkotu egizu nire biotz liorra, ta indazu, neure arrotasunak kendurik; zuri jarraituteko indarra. *Aita geuria, etc.*

IRUGARREN EGOTALDIJA

**Jesu-Kristo kurutziaz
Ielengo jausi zan lekuba**

O, zein astuna dan
Nire pekatuba!
Begira zelan daukan
Jesus auzpaztuba.

Begira orain Pekatarija, zein jausija ta azpiratuba dagan zure arimia. Ikusi egizu Jesusegan pekatubaren astuntasuna.

ERREGUBA

Zerubak ta luurrak indartuten dituzun Jesus, zakuztaz argaldu ta luurrera ezarrija. Kurutze astuna gañian, ta zeu azpijan: Ze ikusgarrija! Eta au jakinik, zelan bizi neinde pekatubakaz damutu bagarik? Jauna

egizu arren, ezaguturik neure erru ta uts egitiak, jagi dedilla laster nire arimia zure bide zuzenei jarraitutera. *Aita geuria, etc.*

LAUGARREN EGOTALDIJA

Jesusek bere ama aurkitu eban lekuba

Amarik bigunena
Nor billatzen dozu?
Ara zure semia,
Laztandu egizu.

Gogoratu egizu emen, zer igaroko zan ama seme-rik laztaneen artian, aurkitu ebenian alkar Kalbarijoko bidian.

ERREGUBA

O, amarik errukarriena! Zelan aurkitu dozu, zuk negarrez billatzen zenduban seme laztana! Buruba arantzaz josirik, arpegi ederra izerdi, odol, ta autsez ezaiñdurik; gorputz guztija azotez eriturik: nora begiratu zinaijo, espadauka zati osorik? Biurtu egizuz niga-

nutz zure begi errukitsubok, ta egizu, izan nadilla ni,
bere seme ordeko. Bai, arren, bai. *Aita geuria, etc.*

BOSTGARREN EGOTALDIJA

**Simon Zirineua Jesusi kurutzia eruateko
laguntzat emon eutsen lekuba**

Kurutzia eruatzen
Lagundu nai dozu?
Bada, nun nai nekia,
Aurkitu daikezu.

*Aztertu egizu orain Judeguben amorruba Jesus
kurutzian josteko, bada, bidian ill ez ekijuen bildurrez,
emon eutsen laguna.*

ERREGUBA

O, Jesus maitia! Zelako gogortasuna aurkitu dozun
gizonen artian! Errukija zirudijan, laguna emotia;
baña, ara emen zukanako amorrubaren asmorik oke-
rrena. Gitxi deritxue orain artian egin deustubena:
gura zaitube josi eureen eskubakaz kurutze orretan,
ta edan eragin Kaliza garratzaren azkenengo ondar

samiñak. Egizu, bada, ni oraingiñokuakaz ondo damu-
turik, izan nadilla benetan kurutze orren seme egijaz-
kua. *Aita geuria, etc.*

SEIGARREN EGOTALDIJA

Beronikiak Jesusi

arpegija garbitu eutsan lekuba

Iru itzuliko
Zapi zurijan
Jesusen irudija
Gelditu izan zan.

*Gomuntau egizu emen Beronikiaren sendotasuna,
Judegu gogorren ardura бага, azartu zanian Jesusi
arpegija sikatzen.*

ERREGUBA

Nos bait, Jesus ona, aurkitu zenduban errukija, ta
saritzat itxi deutzazu emakume senduari zeure itxuria
iru itzuliko zapijan. Sendatu egizu nire arimia, ta emon
egidazu indarra, munduko bildurrak ostikopetu, ta
zure agindubei jarraituteko. Markau egizu nire bio-

tzian zure itxuria, bere gomuntia izan dedin niretzat gauza txaar guztijetarako gorrotua ta gauza onetarako agintia. *Aita geuria, etc.*

ZAZPIGARREN EGOTALDIJA

Bigarren aldiz

Jesus jausi zan lekuba

Bigarrenez Jesus
Jausi da emen,
Urten pekatutik
Ainbat lasterren.

*Begira orain, zenbat bidar jausi zarian pekatuban,
ta zein kurutze astuna izan zarian Jesusentzat.*

ERREGUBA

Nos ezagutu ete dot nik ondo neure pekatuben erruba? Ikusirik Jesus, bigarren aldiz jausirik, ta kuru-tziaren azpijan, zeren zain egon neindeke, ezagutu baga neure itxutasuna? O, pekatuba! Zelan, izan zinai geijago lekurik nire arimaan? Ez, ez. Alperrik jagiko

dira infernuko talda guztijak; biziko nas, bere ontasunez, Jesusegan, ta illgo nas beragan. *Aita geuria, etc.*

ZORTZIGARREN EGOTALDIJA

Jerusalengo Alabei Jesusek berba egin eutsen lekuba

Zeri negar egin
Zeugan daukazu
Bada, pekatuba
Maitetu dozu.

Asko daukazu zer ikasi emakume errukiorrei Jesusek esan eutsezan berba oneetan. JERUSALENGO ALABAAK, EZ EGIZUBE NEGARRIK EGIN NIRE GAÑIAN, EZPADA ZEUBEN BURUBEN GAÑIAN.

ERREGUBA

Bai Jesus maitia! Badaukat nik neuregan zeri negar egiñ. Bada, nire pekatubak ekarri zaitube zu taiju orretara. Eta zugau agertu badau Aita betikuak ainbeste axerre, nire pekatubak zeure gañian artu zenduzalako, zer izango da nigaz bere axerreko egun

ikaragarrijan? Egizu, arren, benetako negarrakaz garbitu nadilla, ta bere bildur Santuba izan dedilla nire betiko jakiturija. *Aita geuria, etc.*

BEDERATZIGARREN EGOTALDIJA

Irugarrenez

Jesus jausi zan lekuba

Irugarren aldiz

Jesus jausirik;

Ez da orregaitik

Emen negarrik?

Begira emen Judeguben gogortasunari. Indargaturik Jesus, jausi zan irugarren bidarrian, ta aurkitu eban errukija izan zan, ostiko puntaz jagi eragitia.

ERREGUBA

Nos artian, Aita Zerukua, itxiko dozu zeure seme bakar ta laztana gizon gogorreen eskubetan? Nos artian gogortuko zara seme onentzat, nigaz errukiorrago izate arren? Egizu, bada, ezagutu daidala nire arimiari deutzazun maitetasuna, ta ez daidazala galdu

Jesusek eskintzen deustazan bere irabazi edo merezi-
mentu amai bagaak. *Aita geuria, etc.*

AMARGARREN EGOTALDIJA

Jesus billoxtu ebeen lekuba

Jantzi apaindubak
Dozuz billatzen?
Jesus billoxtubaz
Ez errukitzen?

*Begira enen, zelako gogortasunagaz kendu
eutseen Jesusi, bere gorputz zauritubari itxatsita
eukan jantzija.*

ERREGUBA

Zeruba izarrez, ta zelaijak loraz jantzi zenduzan
Jauna, zakuztaz billoxturik! Baña, zer, billoxtuba? Guz-
tijori zagoz eratzija, ta odolez eztaldurik. Egizu, billox-
tu nadilla ni neure pekatubetatik, ta jantzirik zure doe
edo grazijazko soñeko garbijakaz, bizi nadilla iños
ezaindu baga, ta alan agertu, betiko Eztegubetara dei-
tuten deustazun unian. *Aita geuria, etc.*

AMAIKAGARREN EGOTALDIJA

**Jesus Kurutzian
josi ebeen lekuba**

Ultze gogorraz
Jesus josirik,
Dago Lauburuban
Zuk esegirik.

*Begira Jesusi, kurutze edo lauburuban, esku ta
oñak ultzez josirik daguala, baña oraindik bizirik.*

ERREGUBA

O, Jesus ontasun guztien ganetikua! Ze neke samin ta astunak ez daruazuz, kurutze orretan bizirik josita zaukezala? Egizu, bada, ez nadilla ni bere gozatu luurreko atsegin argaletan, ezpada, kurutzia izan dedilla niretzat poz ta atsegiñik andijeena, alan jaritxi daidazan bere ondorengo atsegin amaibagaak. *Aita geuria, etc.*

AMABIGARREN EGOTALDIJA

Jesus Kurutzian ill zan lekuba

Ilda, bada, Jesus

Gu biztuteko

Zeruko Atiak

Edegiteko.

Gomuntau egizu emen, ze lotsagarrija izan zan, mundubaren begijetan, lapur biren erdijan Jesusi emon eutsen eriotzia.

ERREGUBA

O, Aita Zerukua! Ill da zure seme bakarra, ta ill da guri betiko bizitzia emotearren. Igaro ditu ainbeste lotsari ta neke , guri ondasun ugarijaguak iste arren. Asko da gogortasunik. Egizu, bada, Jesusen odola izan dedilla niretzat zure esleidubeen markia, ta bere eriotziagaz biztu dedilla nire arimia, ostera pekatubaren eriotziagaz ez ilteko. *Aita geuria, etc.*

AMAIRUGARREN EGOTALDIJA

Jesusen gorputz illa bere Amari altzora eruan eutseen lekuba

Amaren altzuan
Jesus dago illik
Eztago ikusteko
Emen biotzik.

*Emen dauka zure biotzak zek asko samurtu, ikusi-
rik Siongo Donzella ederra bere seme laztan, baña
zauriz illa, alzuan ta laztandurik daukala.*

ERREGUBA

O, ama naibagez betia! Nok emon al leijon atsegin
puskabat zure biotzari! Nok lagundu al leizun zure
nagarrezko bakartadian! Artu naizu, bada, zure seme-
tzat, ta egizu, bizitza garbi bategaz, izan nadilla beti
zure atsegiña, ta gero emon deizudazala beti zeruban
zeure amatasunaren esker gozuak. *Aita geuria, etc.*

AMALUGARREN EGOTALDIJA

**Jesus obi, edo sepultura
barri baten sartu ebeen lekuba**

Ai, nik biotzian
Jesus obitu;
Al baneu betiko,
Ta Ama poztu.

Gomunta zaite, zelan Ama maitiari kendu eutseen bere besuen artetik Jesus, obitu edo sepultetako.

ERREGUBA

O, amarik errukarriena! Zein bakarra gelditu zarian! Nun dozu zeure semia? Nun da zure maite bakarra? Nun atserengo dau orain zure biotz samurrak? Orain artian, illik bada bere, ikusi dozu zeure semia, baña arlosa astun batek estaldu dau, ta ez dauke zure begijak iñun atsegiñik. Egin nagizu ni bere zure negarrean lagun, izan nadin gero betiko atsegiñeen jaube. *Aita geuria, etc.*

AMABOSTGARREN EGOTALDIJA

**Jesus bizturik Magdalenari
agertu jakon lekuba**

Nai dabenak Jesus
Zuzen billatu,
Bere pekatuben
Damuba artu.

Orain ezagutu daikezu, zelan Jesusek maite dituban pekatari ondo damutu, ta bizitza garbijan diraubenak.

ERREGUBA

O, pekatarijen Aita errukiorra! O, ardi galduben Artzain biguna! Zelan poztuko ez da nire biotza, ikusirik, agertu zatzakozala Magdalena pekatarijari, zeure edertasun, ta atsegin, edo glorijaz jatzirik. O, zorijoneko Magdalenaren negarrak! Zorijoneko, mundubari ta bere arrotasunei egin eutseen betiko agurra! Emon egidazu indarra, nik beste ainbeste egiteko, ikusi zaidazan, eguneen baten, zu, edertasun guztien edertasuna. *Aita geuria, etc.*

AZKENA

Ez gaitian gelditu irakurte utsagaz Jesusen kalbarijoko oñatzen gañian. Atera daiguzan arimarako biar ditugun onera ta mesediak. Ezagutu daigun, aragijaren atsegin, ta mundubaren arrokerija ta labankerijetan, ez dala aurkituten zerurako biderik, ta oneek isten ez ditubanak, ezin jarraituko deutsalala Jesu-Kristori, ta izango ez dabela iños lekurik zeruko atsegiñetan.

MEZIA

MEZA AURRETIKUA

O, Jesus, benetan maitegarrija! Beraz, ez zan aspertu zure guganako ondo naija, kurutze Santuban bizitzia gugaitik emonaz? Ez. Nai izan zenduzan ugari-tu geijago ta geijago zeure mesediak, ta orretarako izentau zenduzan Sazerdotiak jarraituteko eureen bitartez Kurutzeko Sakrifizijo andi ta zorijonekuari. Sinistuten dot kurutzeko Sakrifizijua ta altarakua bat dirala. Zu Jesus, zariala Sazerdote nagusi meza bako-txian sakrifiketari dozuna, ta sakrifikauba zariana. Indazu, arren, arimako prestaera garbi bat, bat eginik neure gogua zugaz, Eleixa Santubagaz, ta zure ministro Sazerdotiagaz, irabazi daidazan meza santu one-tan eskintzen jatazan doe ugarijak; ta egizu zabaldu dedilla guztietara zure errukitasun neurri bagia. *Emen gelditu biar dozu meziaren anditasunagaz gomunte-tan, ta biztuten zeure gurarija, itzal santu ta oneras-pen andi bategaz entzuteko.*

MEZIAREN AXIERIA

*Aitiaren ta Semiaren ta Espiritu Santubaren ize-
nian.* Jauna, nator zugana poz ta atsegin billa; artu
nagizu zeure aldetik, ta begiratu egidazu errukitasun
andijagaz, te egizu, ez nadilla naastau gaiskilla ta
pekatarijakaz. Zu zara nire sendotasuna, ta ez zaitez
aldendu niganik. Argitu egizuz nire begijak urreratu
nadin zure Altara santura, nun aurkituko dodan pozke-
rija egijazkua, gozatuteko beragaz zure anditasunaren
aurrian. O, neure arimia! Ez zaite, beraz, naibagetu.
Itxaron egizu, bai, zeure Jangoikuagan, bada aurkitu-
ko dozu beragan atsegin ta bake osua.

CONFITEOR

Neure Aita txito altsuba: auzpazturik zure oñetan,
nator, zerutar guztien aurrian, neure pekatubak autor-
tutera. Neuria izan da erruba, ta guztiz erru andija,
baña ezaguturik damutu da guztiz nire biotza. Donze-
lla txito garbi, Apostolu santu, ta nire zeruko ongilla
guztijak; ikusirik zubek nire lotsarija, jaritxi egidazube

errukija. Jauna! Eleixa santubak erregututen deutsu nigaitik. Entzun egizu bere Ministro Abadia; zeñegaz batera eskatuten deutsudan parkatu deiguzula, bera-ri, niri, ta guztijoi geure erru ta utsegiñak.

ABADIAK ALTARARA IGOTIAN

Orretarako, Jauna, Jesusen irabazijakaz bat egiten ditugu Santu guztijenak, ta batez bere, arako Santubenak, zeintzuben erlikija edo apurrak aurkituten diran altara onen barruban.

KIRIE

Gauza guztien egillia, errukitu zaite zeuk egin gen-
duzuzanokaz: Aita txito samurra bigundu zaite zure
semen erregubetara: Zeruko atiak edegi zeunskuzan
Jesus laztana, itzuli egizu gure arimetara zeure odola,
ta izan zaite euren betiko garbitasuna.

GLORIA IN EXCELSIS ESATIAN

Zeru guztijak autortu ta adierazo daijela Jangoikuaren gozotasun edo gloriya, ta bere bake santubak poztu daijala lurra. O, Jaun altsuba! Biotzeko alegin osuagaz, agertu nai deutsuguz, geure lotsa on, maite-tasun, ta esker onak. Zeruko bildots garbi kenduten dituzuna gizonen pekatubak, entzun egizuz gure erre-gubak. Aitaren alde eskuman jarririk zagozana, errukitu zaite gugaz. Autortuten dogu zure anditasun, don-tsutasun, Jauntasun, ta altsutasuna, ta zariana Jangoi-ko bat Espiritu-Santubagaz Aitaren gozotasun edo glo-rijan.

DOMINUS VOBISCUM

Jangoikuaren laguntasuna izan dedilla gugaz, egin daiguzan alkaturik geure erregu ta eskabidiak.

ERREGUBAK

Eleixa Santubaren izenian, Jauna, Abadiak zuzen-duten deutsuz erregubak; beraz, baita nire izenian bere, nasalako Eleixako semia. Bat eginik neure

gogua berriagaz, eskatuten deusut, bere, neure, ta Eleixa guztiko premiñak gaitik, ta uste dot entzuna izatia zeure errukitasun ta Jesusen irabazi neurri bagak gaitik.

EPISTOLIAN

Jangoiko guztija daizuna; esan zenduban, *egin bedi argija*, ta beriala egin zan. Barristau egizu nire ariman, orduban munduban egin zenduban mirarija. Desegin egizuz illunduten naberen lañuak, ta sortu egizu nigan zeure argitasuna. Entzuten nago orain bere Abadiaren aoz zure berbia, ta sinistuten dot. O, gau illun, azpiratu ta keizaturik euki dozuna nire arima geixua! Egijozu leku Jaunaren berbiak emoten deustan argitasunari. Neure griña, arrotasun, argaltasun, ta mundubaren labankerija eruak, ez al dabe itxutuko geijago nire arimia. Ez Jesus maitia, ez.

EPISTOLIAZ EBANJELIJUAREN BITARTIAN

Jangoiko, garbitu zenduzana Isaias igarliaren ezpanak ikatz ixiotubagaz, garbitu egizuz zure Ebanjelijo santuba adierazotera duan Abadiarenak bere; baita bere nire belarriak ondo entzun daijen. Bardin

eskatuten deustut ondo aituteko argitasuna, ta diñuana gorde ta egiteko indarra.

EBANJELIJUAN

Jauna, asko dira nire uts egitiak, ta eztira ez jakinez, ezpada dakidana ez egiñez. Ziur nago, sinistuten dodana; baña urrin dabiltz nire egitadak sinistuten dodanetik. Badakit, barriz, sinistutia asko ez dodana; bada demoniuak bere sinistuten dabe. Baña zetarako dabe alako sinistia? Eleixiak gura dau, orain nik zure Ebanjelijo santuba entzutia, ta adierazoten deust onetan beti egon biar dodala prest zuzenduteko neure egitada guztijak berak emoten dituban neurrijetatik. Egizu, bada, neure Jaun ona, gorde daidala aginduten jatana, ta ez nadilla aldendu betiko galdubidetara.

KREDUAN

Sinistuten dot Jangoiko bakar bategan, zeñek ez daukan naturaleza edo izate bat baño iru Personetan. Sinistuten dot irubatasuneko lelengo Personia dala Aita, zeru, lur, ta ikusten diran ta ikusten ez diran gauza guztijen egillia. Sinistuten dot bigarren Personia dala seme bakarra, Aitaganik sortuba, ta ez egiña, ta beragazizate edo sustanzija batekua, zein, gugaitik,

ta gu zeruratutia gaitik, jatsi zan zerubetatik, ta egin zan gizon Maria donzelliaren erraijetan Espiritu-Santubaren egitez; izan zala nekatuba, kurutzian illa, ta obituba Ponzio-Pilatosen agindubaren beian: irugarren egunian biztu zala illen arterik. Sinistuten bere dot, igon ebalaz zerubetara nun daguan jarririk bere Aitaren alde eskumatatik, andik etorriko dala bigarrenian, itzal ta edertasunez inguraturik, bizi ta illei betiko erabagija emotera, ta bere Erreinubak ez dabela azken ez amairik izango. Sinistuten dot irugarren Personia dala Espiritu-Santuba, ta datorrela, Aita ta Semiaganik ta daukala eurakaz izate bat. Sinistuten dot Eleixa bakar, Santu, Apostoliku, guztientzakuan. Sinistuten dot ta autortu, daguala bautismo bat pekatuben parkazinoerako. Itxaroten dot illen biztuera barrijan, ta beti iraungo daben bizitzan.

OFERTORIJO EDO OSTIJIAREN ESKINSARIJAN

Aita Zeruko, Jangoiko altsu ta betikua; artu egizu Abade Jaunak zeure seme laztan Jesusen izenian eskintzen deutsun Ostija garbija: eruan egizu ontzat azartutia ni bere, beragaz batian, eskintzen neure pekatuben ordañian: baita bere eskintzen deutsut

arima leijal bizijak ta illak gaiti. Guztijok zuzenduko al gara betiko zorijontasunera.

KALIZIARENIAN

Eskintzen deutsugu, Jauna, Kaliza osasuntsubau, eskaturik zure guganako errukitasuna; egizu, bada, eskinzari onek igon daijala zure zeruko jarlekura giño, izan dedin gure, ta beste guztijen zorijontasunerako.

OFERTORIJO EDO ESKINSARI OSTEKO ERREGUBAK

Artu egizuz, Jauna, gure biotzak egiten deutsubezan eskintsarijak. Damaturik gagoz geure pekatubakaz. Entzun egizuz, errukiz, gure arima geixuen zizpurubak. Eta zu, Espiritu bizitza emollia, jatsi zaite gure doien gañera, ta dontsutu egizuz, eskinijak izan ditian duiñtasunez Aita betikuaren anditasunaren aurrian.

ATZAMARRAK GARBITUTIAN

Garbitu egizuz, Jauna, gure arimak, urreratu gaitian zure mai Santura. Nai dituguz entzun zure anditasunak, ta adierazo zure mirarijak. Ez egizuz itxi gure arimak, galdu ez ditian geistueu artian, zeintzuben eskubak dagozan loitubak. Nai deutset jarraitu bide

*zuzen ta garbije, ta lagun zakidaz arren. Alan maite-
tuko zaitut beti beti zorijoneko guztien artian.*

ORATE FRATRES

Erregutu daijogun guztijok Jangoikuari, ta alkartu daiguzan geure gurarijak, ontzat artu daijan eskintzen deusagun Sakrifizijo au.

ERREGU IXILLAK

Lurreko guda edo gerrak goiturik, erbeste onetako naibagiak igarorik, betiko atsegiñetan atsereten zagozen arma zorijonekuak, ta batez bere, gaur izentetan zaituguzanak, batu egizubez zeuben erregubak geuriak gana, ezagutu daiguzan laster zeuben bitartetasun andijaren sari ugarijak. Baña, azkenik, Aita betikua, iminten dogu itxaropen ta poz guztija eskintzen deusugun zeure seme bakar ta laztanaren Sakrifiziau. Begira gure Aitari, ta errukitu gugaz bere semiakaz.

PREFAZIJUAN

Jangoikuaren ontasunaren poz andi bategaz, jaso daiguzan geure biotzak zeruragiño, emoteko eskerrak egin deuskuzan mesede andijak gaitik. Artu daigun bere anditasunaren itzal egijazko bat, ta billatu daigun Jesu-Kristo geure Jauna ta bitartekua, beragana urreratu, ta Aingerubakaz batera esateko: Dontsuba, dontsuba, dontsuba exerzitu edo talda guztien Jaun eta Jangoikua! Zerubak ta lurak adierazoten deuskube bere anditasuna.

KANONETIK AURRERA

Zure, aurrian auzpaturik, o, errukiz beteriko Jauna! erregututen deutsugu ontzat artu daizuzala gure doe ta eskinsarijak. Batez bere erregututen deutsugu zeure Eleixa Santuba gaitik. Gorde ta zaindu egizu agindurik daukazun legez. Egunerik egunera batubago egizuz bere seme guztioen biotzak gozatu gaitian bake santu baten. Begiratu eijezu errukiz Aita santu Erromakuari, zein dan Eleixa guztiko buruba, gure obispo Jaunari, erregeri, ta arima leijal guztijei. Gomuntau bere zaitetz errukiz geuk eskatuten deutsugun arima guztijakaz , ta meza santu onetan aurkituten garianokaz. Ondo ta argiro dazauzuz guztioen premiñak, ta egizu, ikusi daiguzala laster geugan zeure

ontasun ta errukitasunaren ondasunak. Jauna, urrera-
tu gara altara santura zure siniste ta itxaropen andi
bategaz. Badazaugu geure argaltasuna, ta deituten
deutsegu zugan Zeruban gozatuten dagozan arima
zorijonekuei, bat egin daijezan euren erregubak geu-
riakaz; bada alkarturik guztijok, ta Jesus zure seme
bakarra laztana buru dogula, zer itxaron ez daikegu
zure ontasunetik? O, Aita betikua! Zuk emon zeuskun
zeure seme maite ori gure argaltasunen jasogarritzat,
naibagetako atsegintzat..., ta erbeste onetako negar
mueta guztijen pozgarritzat emon zeuskun, bai, gure
buru ta Aitatzat, gura zendubala guztiokaz artalde
bat, Artzain bera zala, egitia: Emon zeuskun, bai, geu-
gaz ta geuretzat izateko, ta, nok ezagutu eukezan
onetarako artu zenduzan asmo santubak? O, lurreko
jakiturija argalak lotsatuteko, jakiturija neurri bagia!

KONSAGRAZINUAN

Sinistuten dot biotz osuagaz, Jesusek, ill aurreko
egunian, artu ebala ogija bere eskubetan, ta bedein-
katu edo dontsuturik, zatitu, ta emon eutsela bere
eskolarijei, biurturik, bere berben indarrez, bere gor-
putz egijazkuan. Bardin sinistzen dot, artu ebala apal
ostian kalizia ardaugaz, ta dontsuturik, ta biurturik

bere odolian, emon eutsela edaten. O, mirari guztien mirarija? O, Jesusen berben indarra! Oraintxe bere, Abadiaren aoz esanik, barristau da jazoerarik zorijonekuen au. Ai, nok emon lejozan Jaunari duiñeko esker-rak.

KANONAREN BIGARREN ZATIJAN

Zuri, bai, anditasun guztijen anditasuna, Jangoiko altsuba, eskitzen deutsugu ostija benetan garbi, benetan dontsu, ta orban bage au, (zein dan egijazko ogi bizi garria, ta egijazko kaliza osasunekua) Jesusen neke, eriotza, biztuera barri, ta igoera zerurakuaren izenian. Eta, Jauna, baldin Abel, Abraham, ta Melkisederen eskintsarijak, ain ontzat artu bazenduzan; zer itxaron ez daikegu orain eskintzen deutsugun sakrifizio onegaz, zeñen keriza ta irudi labur batzuk baño ez ziran lenagoko guztijak? Bai, Jauna, bai: eskintzen deutsugu gure pekatubak garbitutia gaitik zatituba izan zan Jesusen gorputz ederra, ta gure arimak garbituteko emon zan bere odol erru bagia: eskintzen deutsugu bere biotz gure maitetasunez edegija. Betor, bada, bera gaitik, gugana oraingiko gaistakerijen parkamena, betor aurreruntzian ez egiteko indar ta laguntasuna; betoz, bai, zuk berari deusazun mai-

tetasunak guretzat eskatuten deusuzan doe errukitsu guztijak. Errukitu bere zaite Garbi-leku edo Purgatorijoko sutan dagozan arimakaz, ta egizu, Jesusen odolagaz erosiriko arima arek, ikusi daijela laster zure arpegi ederra.

O, Jesus benetan maitegarrija! Zelan emon neizuz deustazun maitetasunaren eskerrak? Lagun zakidaz, arren, nik bere alegiñez ta biotz osuagaz maitetu zaidazan. Ez ditiala izan nire berbak, askorenak legez, azaleko ta miin utsekuak, ezpada ain egiazkuak, zeinda lenago emongo dodan neure bizitzia, ta galdu gauza guztijak, mire gogoko ez dan gauzarik egin baño. Bai neure Jesus laztana, bai.

PATER NOSTERRIAN

Aita geuria, Zerubetan zagozana, etc.

GERO

Atera gaizuz, Jauna, geure gatx ta argaltasun guztijetatik, ta egizu, agintau daijala gure arimetan bake egijazkuak. Iminten deusuguz bitartekotzat zerubeta-ko Erregiña, San Pedro, Paulo Apostolubak, ta zoriijoneko guztijak. Alan eskatu, ta itxaroten dogu bake sendo ta galduko ez dana.

AGNUS DEI ESATIAN, TA GERO

Jangoikuaren Bildots, munduko pekatubak kenduten dituzuna, errukitu zaite guzaz; Jangoikuaren Bildots munduko pekatubak kenduten dituzuna, errukitu zaite guzaz, Jangoikuaren Bildots, munduko pekatubak kenduten dituzuna, emon eiguzu bakia.

Aspertu baga eskatuko deutsugu, Jauna, zure bake zorijonekua, bada, esan zeuntsen Apostolubei, bakia emoten deustubet bakia isten deustubet. Egizu, bada, zure seme alaba guztijok alkarturik bizi gaitiala, ta baturik guztijok Jesus maitiagan: Ez deijela izan lekurik gure artian arerijo geistuaren asmo axerrakorak, ez pekatubak, zeñegaz ezin gordeko dan bake egiazkua; ezpada Jesusen maitetasun, ta arimako garbitasunak, zeintzubak diran betiko bakiaren bai ziu-rak.

KOMUNIÑO E AURRIAN

Jesus maite, zeure eriotziagaz munduba biztu zendubana, zeure gorputz ta odola gaitik, atera naizu pekatu ta gatx guztijetatik, ta egizu ez nadilla iños

aldendu zukanik, ezpada bizi nadilla iratsirik zure agindubetara.

Zure gorputz ta odol egiazkua, zeintzubak artu gura nitukian, (ezagutzen badot bere neure duinbagesuna) ez ditiala izan nire erru geijagorako ta kaltian, ezpada, zure errukitasunez, izan dekidazala neure onerako, ta betiko bizitza zorijonekuaren jaube izateko.

KOMUNIÑOIAN

O Jesus laztan, gure janari ta edari egiazko eginik, Altarako mai santu orretan zagozana! Eta nor urreratu leitekian orain, Abadiagaz batera, zu artutera! Eta nok euki leizan atarako Aingeruben garbitasun ta maitetasun erria! Ez egizu, Jauna, itxi Judas lako biotz loirik zugana urreratuten. Zabaldu bedi munduko bazter guztijetan zure anditasunaren entzutia, ta ezagutu bedi, aldan añan, zugaz bat egiteko eskatuten dan prestaera arduratsuba. Izan zaite guretzat betiko bizitzia, ta ez egiguzu itxi, geure lotsabagakerijaz, gaiski pretaurik iños zugana elduten, jakinik ziur, jan ta edango dogula betiko galdumendijaren epai ikaragarria.

AZKENEKO ERREGUBETAN

Zeruko Erregiña, Apostolu, ta zorijoneko guztijen izenian, ta batez bere gaur Eleixiak izentetan ditubanenian, eskatuten deutsugu, zabaldu daizuzala gugana Meza santu onetan eskatu deutsuguzan mesediak. Izan bedi beti gugaz zure errukitasuna, gugaitik bere odola emon eban zure seme Jesus gaitik. Bai, arren, bai.

ITE MISSA EST ESATIAN

Esan da Mezia, emon daijoguzan Jangoikuari alegiñezko eskerrak bera entzuteko eria emon deuskulako.

AZKENEKO BENDIZINOIA

Aitaren, Semiaren, ta Espiritu Santubaren dontsutasuna jatsi dedilla gugana, ta egon dedilla beti gugaz. Bai, arren, bai.

AZKENEKO EBANJELIJUAN

Jangoiko errukiorrak agindurik gizonei bere Seme bakarra aragituta gizon egitia urratuteko pekatubaren kateiak, ta desegiteko bere illuntasunak; itxaroten zan poz andijagaz gizonen zorijontasun bakar au. Antxina-tik adierazo eben Igarla santubak bere etorreria, nos,

zelan, ta zerzeridade guztijakin. Jangoikuaren seme bakar au zan beti beti Jangoikua; eguan Jangoikuagan, ta bera zan Jangoikua. Berak egin zituban gauza guztijak, ta ez zan bera baga ezer egin. Eldurik izentauriko egunak, egin zan gizon, ta zabaldu zituban pekatuko bidei aldendu ta zerukuari jarraituteko argitasunak. Orregaitik, mundutarrak ez eutsen ezaguera ta abegi onik egin. Baña, beste batzuk jarraitu eutsen, ta bete zituban onek bere doiakaz, ta egin Jangoikuaren Seme. Jarraitu daijegun, bada, guk bere, bere erakutsijei, izan gaitian betiraunian bere zorijontasunen Jaube.

MEZA OSTIAN

Gizonak esan al baño errukiorrago zarian Jesus laztana! Zurturik dago nire arimia; arriturik nire biotza! Ni baxen pekatari andi bat euki dozu Aingerubak mirariturik begiratzen deutesen Sakrifizijo Santuban! Geijago diñot. Ni gaitik eskini izan zara altarako Mai santu orretan! Zer izango ete da zuk ainbeste maite dozun nire arimatxu onegaz? Zer izango ete da, diñot zure odolagaz erosi ta garbitu zeunstan arima onegaz? Ezin aspertu nas esaten: zer izango ete da bera-gaz betiraun edo eternidadian? Galduko ete ditut zure

ontasun, mesede, ta errukitasun ain ugarijak, eta eratsi nire gañera beti betiko axerre ta madarikazinoiak? Aldenduko ete nas geijago zure bide garbi ta zuzenetatik; edegiko ete deutsadaz pekatubari neure biotzeko atiak, ta alde eragin zure maitetasunari? Ez, arren, Jesus ona. Edegi dedilla lurra, ta iruntsi nagijala, edo zeruko subak kiskaldu alako eskergabetasunik egin baño lenago. Sendatu nagizu zeure odolagaz, emon daidan pozik, biar bada, neure biotzeko azkenengo odol tantia pekaturik ez egite arren. *Bai, arren, bai.*

SINISTE, ITXAROPEN TA MAITETASUNEZKO EKINTZAK EDO, AKTO FEDE, ESPERANTZA, TA KARIDAEKUAK

SINISTEKUA

O, neure Jangoikua! Nik sinistuten dot, zariana Jangoiko bakarra iru Personetan. Nik sinistuten dot artu ebalagure aragija Irubatasun Santuko bigarren Perso-
niak, Maria Donzelliaren errai garbijetan, Espiritu-Santubaren egitez. Jaijo zala Amaren donzellatasunaren kalte baga. Ill zala kurutzian, gu pekatutik aterate arren. Irugarren egunian biztu zala. Gero igon ebalagure Zerubetara. Etorriko dala juizijo edo zuzentasuneko egunian, ta emongo deutsezala onai betiko atsegiñak, ta deungai betiko neke ta kastigubak. Sinistuten dot biotz osuagaz Eleixa Ama santubari erakutsi deutzazun guztija, zerren utsik ezin zinaijan, zarialako ona, jakituna ta egija bera: eta gura dot bizi ta ill siniste onetan.

ITXAROPENEKUA

O, neure Jangoikua! Itxaroten dot zure erruki, ta ontasun amaibagan, eta Jesu-Kristoren irabazi edo merezimentubak gaiti, parkatuko deustazuzala neure pekatubak, emongo deustazula zure doe edo grazija gordetako zure agindubak, eriotza on bat, ta onen ondoren betiko atsegin edo gloriija.

MAITETASUNEKUA

O, neure Jangoikua! Nik maitetuten zaitut biotz ta alegin guztijagaz, gauza guztien gañian zerren zarian guztiz on ta maitegarrija; maitetuten bere dot neure lagun edo projimua neure buruba legez, ta zure maitetasunez. Alan izan dedilla.

EGUNEKO ERREGUBAK

Artu egizu oituria, erlojuba entzutian, ta entzuten ezpada bere, noxian bein, *Abe Maria* bat esateko: esanik lelengo, *Bizi bedi Jesus: Ill bedi pekatuba* ta gero, *Bizi bedi Maria; Donzella, neure ama maitia.*

Goixian, egubardijan, ta illuntzian, Abe Marijako kanpaiak jotian, dagoz induljenzija edo parkamenak erregu oñek eginagaz.

Jaunaren Aingerubak emon eutsazan barri onak Marijari , ta Jangoikuaren Semia sortu zan bere sabe-
lian Espiritu-Santubaren egitez. *Abe Marija, etc.*

Ara emen Jaunaren esklaba edo menpekua, egin dedilla nigan, zuk esan dozuna. *Abe Marija, etc.*

Jangoikuaren Semiak artu eban gure aragija, ta bizi izan zan gure artian. *Abe Marija, etc.*

ERREGUBA

Jauna, ezarri egizu guganutz zure doe edo grazija; zure Seme Kristoren aragitude edo gizon egitia Aingerubaren bitartez jakin dogunok, bere neke, ta Kurutzia gaitik, eruanak izan gaitian biztuera barriko atsegin edo glorijara. Alan izan dedilla.

JAN AURREKO ERREGUBAK

Aitiaren, ta semiaren, etc. Jangoiko ondasun guztijen emollia, zure eskubetatik artuten dabe abere, patari, ta arrain guztijak bizi izateko janarija. Emon eiguzu, bada, guri bere, egunian eguniango ogija, ta donsutu edo bedeinkatu egizu, orain zure izenian jate-ra guazana, izan dedin gure osasunerako, ta zu geijago maitetuteko. *Aita geuria, ta Abe Marija.*

JAN OSTERAKO ESKERRAK

Eskerrak, Jaun maitia, guraso ona legez, emon deuskuzulako zeure janarija. Egizu, izan gaitiala beti ezaguera onekuak, zure mesede andijetara. *Aita geuria, ta Abe Marija.*

Eskatuten deutsugu geure ongilla, ta arerijuak gaiti, ta errukitu zaitiala Purgatorijo edo Garbilekuban dagozan arima guztijakaz. *Aita geuria, ta Abe-Marija.*

Jangoikuak bere eskutik euki gaikezala munduban, ta gero guztijok batu gaizala atseginez zeruban. Alan izan dediila.

KONFESINOIAREN GAÑEKO IKASBIDIAK

Batiatu ezkerro pekatu egin, ta arimako grazija edo garbitasuna, galdu dabenarentzat, al dabela, ez dago Konfesinoe on bat baño beste zerurako biderik. Ez dago egija au ez dazauban Kristinaurik, ta orregaitik konfesau oi dira ain sarri. Baña, zetan dago konfesau arren Kristinau guztijak, geijenak betiko galdutia? Zetan dago, adiñera elduta ilten diranen artetik gitxia-go zerura juatia beko susko oxiñera baño? Ala ez zenduban uste alan zanik? Bada, irakurri egizuz S. Nilo, S. Simeon Stilita, S. Theodoro, S. Basilio, S. Efren, S. Kristostomo, S. Agustin, ta beste Santu, jakitun, ta Erakusla asko, ta eurak esango deustube, askoz geijago duazala betiko susko lezara, zeruko atsegiñetara baño. Ai, Ai, Ai! Ta, zetatik dator au, ezpada konfesinoe gaiski egiten diranetatik? O! Zerubei negar eragitekko kristinau askoren itxutasuna! Batzuk duaz konfesetara, oitura utsez, pekatubaren kaltiakaz gomuntau bere baga. Beste batzuk, absoluzinoia emoten badeutse, pekatuben damurik euki ez arren, bioi dira arreta edo pazienzija galantian. Beste batzuk, dabiltz konfe-

sore nasai ta jakiturija edo ardua gitxikuen billa, ziaz-
tau ez deijuezan euren egitada, ibilbide, ta pekatuben
sustraijak. Beste batzuk, lantzian konfesore bategaz,
emondako berbak bete ezagaitik, ta beti lengo peka-
tuben kateia aldian dabela. Beste batzuk... Ai, zenbat
aldetatik dabilzan itxuturik! Argiro esateko, ez duaz
konfesetara pekatubaren gorroto ta bizitza barri ta
zuzen bat egiteko gurari senduagaz. Onelakuak dira
Espiritu-Santubak aitatuten daben alperraren gisa-
kuak, diñuanian, *Gura dau, ta gura ez dau alperrak*.
Gura buke garbitu; gura leuke Zerura juan; gura litu-
ke artu Sakramentu santuben doe ugarijak; baña gitxi
nekatuta, ereguz bizi izanda, gorputza maitetuta, ta
biar dana egin baga. Begira, pekatari geixua, galdu ez
zaitian betiko! Emon eijozuz eskerrak Jangoikuari bota
ez zaitubalako pekatubagaz batera, betiko sutara
bere begijen aurretik. Biurtu zaite laster beragana,
Jesusen odola bera, izan ez dedin zuretzat, beti betiko
negarra.

MARIA TXITO DONTSUBAK PEKATARIJARI EGITEN DEUTSAZAN ERREGUBAK

Jakin egizu, pekatari geixua, kurutziaren oiñian zure Amatzat gelditu nintzanetik, irakiten dabela nire biotzak zure maitetasunian, Zu gaitik galdu neban neure erraijetako seme laztana. Neure begijak, ta oraindik geijago biotza, izan ziran bere eriotza gogor ta odoltsubaren ikusla edo testigu. O, nire orduko, arima barruko, larritasun ta illuntasunak! Ainbeste atsakaba, ta samintasunen artian, atsegin bat aurkituten eban nire arimiak; ta zan zure amatzat gelditua, ta zu nire seme edo alaba izatia. Baña zuk bere itxi nozu: zuk bere iges deustazu: Zuk bere gura ez nozu. Zure arima, ainbeste maite nebana, dakust loitu, ezaindu, ta pekatuban jausija. Onetan geldituko ete dira nire negar, ta zizpurubak? Onetan, nire zukanako amatasuna? Ai, ta ikusi al bazinai nire biotza! Zelan billatuko zendukian nire amatasuna, baketuteko laster neure Seme, ta zeure Aita maitiagaz! Erdu, bada,

neugaz, erdu arin, ta luzatu baga, beragaz laztandute-
ra, izanik zuretzat zorijontasun bakarra. Ez da gogor-
tuko bijoen erregubetara. Autortu egizuz zeure erru
edo pekatubak konfesore baten oñetan, ta ikusiko
dozu nire Semiaren odolaren errukitasuna. An izango
nozu zeure Ama, ta aurrera bere bai, bizitza onian
iraun, ta betiko zorijontasunak jaritxi artian.

PEKATARIJAREN NEGARRAK AMAREN ERREGUBETARA

Ama maite, errukior, ta ontasunez betia: zure berbak edegi dabe nire biotza uste neban baño geijago. Zure erregubak bigundu ta samurtu dabe nire arima gogortuba zirudijana. Ara emen semerik galdubena prest zeure esanera. O, Ama laztana! Nik zu billatu biarran, zu nire billa! Zu nire billa, diñot milla bidar, izanik zerubetako Erregiña, tani lurreko aarrakaz bardindu biar ez neukiana neure pekatubak gaitik! Baña, zelan negar egingo dot neure pekatuben neurrijan! Ea, ama errukiorra! Izanik zu zeruko ondasun guztien iturrija, izan zaite niretzat naibage guztien pozgarrija. Lagun zakidaz konfesoraren oinetan autortu daidazan zintzoro neure erru ta utsegiñak; garbiturik neure arimia zure Seme maitiaren odolagaz, iraun daidan bizitza barrijan, gero zugaz izateko beti betikuan. Alan izan dedilla.

GOMUNTAGARRIJA

Konfesinoe nai komuninoerako prestaeran, ardura geijago imini biar da biotz ta gogo onagaz egitian, berba ta erregubak esatian baño. Batzuk irakurten ditube liburuban erregubak arin aringa edo oitura utsez: beste batzuk esaten ditube buruz, baña miin utsagaz ta izkunez legez, ta alan ez da mesederik ateraten. Beste arenbeste jaso ez dedin liburutxu onetan iminten ditudan erregubakaz, uste izan dot, onduen izango dala, noxian bein erregu artetan kurutzetxu bat imintia, ta alan, señaile edo ezaugarri au + aurkituten danian, zarratu liburuba, gomuntau irakurri danagaz, ta igitu biotza. Bardin buruz ikasi arren, erregutu ta gomuntau, ta ez iraitzian aurrera igaro. Alan egiten eban sarritan Sta. Teresa Jesusek bere erregubetan.

EXAMIÑA EDO ARIMAKO AZTERENA BAÑO LENAGOKO ERREGUBAK

Jangoiko andi, pekatarijei parkatuteko makurturik zagozana; ezarri egizuz niganuntz zure begi errukitsu-bok. + Espiritu-Santu, argitasun guztien iturburuba egizu, ezagutu daidazala neure erru ta utsegitiak, ta ez nadilla aztu eurakaz konfessoriaren oinetan. + Ez nadilla itxutu neurekoitasunez; edo besten egitada edo exenplu txarrakaz; ez diabrubaren asmo geistoren bategaz. + Mesede onen eske nas, bada dazaut, asko estaldu leidala neure argaltasunak. Orretarako iminten dot bitartekotzat neure ama laztan ta garbija, zeñegan daukadan iminirik itxaropen edo esperantza osua.

ARIMAKO AZTERRENA

Astiro ta arin aringa baga, egin biar da arimako azterrena, gelditurik, gogora ekarten, geijago, edo gitxiago, premiña dan aña, ta atera, alegiñez, zenbat bidar egin dan onelako edo alako pekatuba.

Ara nundik. Itxi bazenduban egin baga urteko konfesinoia, edo Paskuako komuninoia. Lotsaz pekatubak itxi, edertu, utsera bota, edo gitxitu bazenduzan, edo ez bazenukan damu, ta onduteko gogo sendorik, zerren, orduban, barristau biar daben konfesinoiak. Itxi bazenduzan penitenzijak egin baga, ta onek baziran osagarrijak; esaterako; ez sartuteko ain etxetan; urlijagaz, bakarrian barbarik ez egiteko; alako etxetik urteteko; pekatu bakotxian, au edo bestia egiteko; dantza, jolas, ta erromerijetara ez juateko; onen besterik arenbestera konfesetako, etc.

Fede edo sinistia galdu, edo borondatezko ez ta baidetan egon zarian. Sorginkerija, aztuben barri, bendizinoe edo dontsutasun guzurrezko, ta alako gauza bide bagakuetan uts egin badozu. Nagija izan bazara doktriña edo lkasbide jakin biar diranetan.

Galdu badozu itxaropena; edo itxaron badozu bakarrik zeugan, edo bakarrik Jangoikuak, zeure alde-tik alegiña imini baga, zerurako zaitubala.

Izan badeutsazu gorrotorik Jangoikuari atsakaba edo beste gauzaren bat gaitik, ta esan badozu gaiski bera edo bere Santubak gaitik. Egon bazara lotsa gitxigaz Eleixan, ta, batez bere soñeko nasai usañe-kuakaz.

Guzurrezko juramenturik egin, edo eragin badozu; edo gauza deungaren baterako. Zeure mendekuei onetan gaiski erakutsi badeutsezu. Promes edo eskin-zarijak bete ezpedituzu, edo gorrotoz egin badituzu, esaterako, argija imini, edo diruba emon norbaiti kal-tia etorri dakijon. Egin badozu eskintsarija erromerija-ko olgantza nasaijetan ibilte arren. (Gurasuak; ez arren jaramonik egin alako, zuben seme alaben ta mendekuen, boto edo eskinsarijei. Ez dau Jangoikuak gura arimako kaltian izango dan eskintsaririk, ta alan ez itxi egiten, ta betetan, ondo ez dan gauzia). Bota badeutsazu biraorik zeure burubari, seme alabei, gurasuari, edo besteri, ta ze gorrotogaz.

Eleixiak dirautsun egunetan, al dozula, mezia entzutia itxi, edo mendekuari itxi eragin badeutsazu, edo egon bazara mezan gogo ta ardura txarragaz.

Biarrrik egin edo eragin badozu jai osuetan; ta agirijan eginik, zer esanik emon badozu. Egin biar dituzula, ausi badiuzu Eleixako barubak. Aragirik jan badozu, ezin jan zeunkian egunetan; aragi ta arrainik naste jan, ede eragin badozu, onez ostian, Garizuman ezne ta arrautzarik Bulda baga jan badozu.

Gurasua bazara; seme alabei adiuntzaz doktrinia erakutsi; ta eleisbide ona emon ezpadeutsezu. Euren gaiski eginak kastigau ezpadiuzu: pekatuko bidetan, edo lagun geistuakaz ibilten itxi badeutsezu. Ezkontzako berbak emonik, alkarren etxetara, edo alkarra-gaz egoteko lekura juaten itxi badeutsezu; ta berarizko ardura bat euki ezpadozu berba a emon ezkerro, arimako kalterik izan ez dedin. Erromerija, dantza, ta nasteko jolasetara juaten itxi badeutsezu. (Orain artekua bardin aitu biar da mendeko guztijakaz). Taberna, joko, ta bide gaistuetan zabaldu badozu seme alabei jaokena: Lagundu ezpadeutsezu, alegiñez, Jangoikuak deituriko bizitza edo estadura.

Seme edo alabia bazara: Galdu ete dozun gurasuei zor jaken lotsia, ta maitetasuna; edo ukatu badeutsezu laguntasuna euren premiñetan; bete ete dituzun kontratu ta testamentuko agindubak: Galdu badozu euren menpetasun edo obediencia, emon

badeutsezu naibagerik euren barri baga ezkontzako berbia emonda; nai ibillera txarrakaz, bada ibillera txarra berez izan arren pekatu, gurasuaren agindubaz bestera danian, dago bigarren pekatuba.

Agindu onetan aztertuko ditube euren arimak, senar emazte, ugazaba, agintari, ta landun guztijak, bakotxari jaokan legez.

Il badozu inor, edo opa izan badeutsazu eriotza edo gatxik; nai biotzez poztu bazara inoren kaltiagaz. Izan badozu axerre, burruka, makillakarik, edo jarri bazara atarako bidian: Ukatu badeutsazu axerre ostian agurra, ta biar dan artu emona. Zeure erruz seiñik galdu, edo emon badozu atarako biderik: Zeure burubari kalterik egin edo opa izan badeutsazu. Orditu bazara; oituraz bada, ta ezagaturik taberna, onra, eztegu ta piestara juanagaz jausten zariala errenkura negargarri orretan, esan biar da zenbat bidar izan zarian alako lekubetan beti jausi ez arren; ta alako lekubei itxi baga ez zara ondo konfesauko.

Egin badozu aragizko pekaturik, edo opa izan badozu, edo erabilli badituzu borondatez gauza ezañak goguan: Begirakune, ta kiñu geistuak, tiraka, bul-tzaka, txitximurka, oratuka, mosuka ta onelako gizon ta emakumen arteko gauzak egin, edo lekurik emon

badeutsezu. Izan bazara pandango dantza nastu, jolas, bigira, ta erromerija nasaijetan. (Egijezu, arren, betiko agur bat onelako ibilleri. Gomunta zaite zeure arima eder, ta Jesusen odolagaz garbitubaz, ta alde egizu loikerija, ta berdekerijako batzarretatik. Ai, zenbatak negar egiten dituben infernuban orrelako ibiltiak!) Egin badozube gizionezkuak alkarregaz loikerijarik, ta bardin emakumiak. Egin badozu zeure gorputzian, eskuka begirakune zantar edo atsegin loiko gauzarik. Jausi bazara pekatu loijan aberiakaz. Gaiski egin, edo erakutsi badeutsezu umetxubei. Ezan badozu berba, kanta, ipuin, edo jazoera loi, berde, ta bide txarrekorik, ta zenbat lagunen aurrian: egon bazara gogoz edo barrez entzuten, ta galerazo ezpazenduban al izanik. Billatu badeutsazu nori geistakerijarako lagunik, edo emon etxian atarako lekurik. Euki badozu etxian bigira edo batzar nasairik.

Aztertu biar da seigarren agindu onetan izan ete diran pekatubak ezkondu senide, edo garbitasuna eskinirikuakaz, edo izan badira Eleixan.

Ezer ostu badozu, ta izan bada indarrez: Eleixan, edo Eleixako gauzia bazan ostuba. Ekanduz ostu badozu, puskaka izan arren, pisu, neurri edo bestelan. Kalterik egin badozu solo, baso edo nunbait. Txarra

ontzat emon, ardauari ura bota, galurunari arto uruna, edo onelakorik egin badozu, salduteko. Larregijan imini badituzu etxe, ta solo errentak: Eruan badozu usura edo irabazi txarrik diruba edo beste onelako gauzarik aurrez emona gaitik. Ostu badeutsazu guraso edo ugazabari gari, arto, edo beste gauzarik. Ostuten lagundu, edo estali badozu. Gorde badozu zeuretzat billaturiko gauzaren bat, jakitera egin baga norena dan, edo ondo itundu baga konfessore edo jakitun bategaz. Isten badituzu zorrak biurtu baga, nagitasun ta ardura txarrez. Gitxiago edo txarragua emon badeutsazu amarren edo primizijari: Ereitekua atera, edo alako lapurretarik onetan egin badozu. Iñori kalterik egin badeutsazu zeuk, edo zeure erruz, zeure mendeko edo ganadubak. Iñori auzi okerrik emon, edo puztu badozu atarako.

Guzurrik esan badozu, ta izan bada iñoren kaltian. Gauza txarrik iñori asmau edo ezarri badeutsazu. Iñoren gauza txar ixilleko ta gitxik dakijana, zeuk entzun, ikusi, ta alan izan arren, besteri esan badeutsazu, edo gogoz entzun badozu. Egin badozu iñor gaitik saio edo juzgu txarrik, zeure naiz, ta berak atarako biderik emon baga.

ERAKUTSI LABUR BATZUK

Azterrena eginik, gomuntetan ezpazara pekatu andi, edo ariña izan arren, gitxitan egin dozunen bategaz; beragaz damutu, ta aurrera ez, egiteko gogo sendua artuteko, gogoratu egizu lenago konfesautako pekatoren bat, zeñek emoten deutsun damu andija, ta bere gañian ondo prestaunik, esan egizu barrero konfesinoian. Pekatu bat da asko bizitza guztijan negar egiteko, ta, bera ondo konfesaurik, atera daikeguz beti sakramentubaren ondasunak.

Azterren onduan, belaunbikoturik lekurik batubedian, al bada Sto. Kristo baten oñetan, eskaturik damuba Espiritu-Santubari, egizuz siniste, itxaropen, ta maitetasuneko, edo Fede, Esperantza, ta Karidadeko aktuak esaten jakenak. Gero, gomuntau egizuz astiro astiro pekatubaren kaltiak. Zelan galdu dozun betiko zeruba, ta irabazi susko betiko oxiña. Zelan ezaindu dozun zeure arima zeruko izarrak baño milla bidar ederrago zana; ta batez bere zeure eskergabetasuna, galdutian Jangoikuaren maitetasun edo amodijua.

DAMUZKO ERREGUBAK

O, neure Jangoiko benetan maitegarrija! Itxi egidazu arren berba egiten, askatu al baledi zerbait nire biotza. + Pekatubagaz loturik dago: Ai! ni pekatuban, ta pekatuba nigan, ta ori neure guraz! Jauna, lotsaturik nago ikusirik neure erru ta utsegitiak. Baña nora eztalduko nas zure begijen aurretik? + Ez: zugana nator aita errukiorra. + Zugana, ni, seme galdu ta eskergaistokua. Bai; benetan eskergaistokua! Zure ontasunagaz aztu izan nasana, ta zure semetasuna galdu dodana. + Orregaitik, zugana nator, ta badakit artuko nozuna. Artuko nozu, zarialako ontasun guztien ontasuna, ta ez dozulako botako zeuganik ondo eza-gutu ta damuturik billatzen zaituban semerik. + Baña, zelan egin daiket biar neukian beste negar neure argaltasunen gabian? Nok emon leijuen nire begijein ainbeste ur, botateko gau ta egun malko ugarijak! + Nok leukian Pedro ta Magdalena baten samurtasuna! Eta, Jauna zelan emon neizuz duiñeko eskerrak mesede ain audijak gaitik, ta bota ez nozulako betiko susko labara? + Ai, eta zek emoten ete eutsun ainbeste erruki niretzat? Nenbillenian zure igesi, ta pekatube-

tan gozaturik; egiten nitubanian zure begi ederren aurrian, munduko batek ikusijagaz lotsatuko nintzan gauzak, zek bigundu zenduzan, ez ezarteko nire gañera zeure axerre guztija? + Neure arimia; ezagutu egizu nos bait zeure egilla ta Jaube bakarraren ontasuna: Egizu negar, S. Agustinegaz, lenago ez maitetuba, ta lurreko umekerijakaz itxutuba. + Zuaz laster Jesusen oñetara, ta esan egijozu: *Parkatu arren, parkatu seme galdu ta errukarri oni. Damu dot, gauza guztien gañian, pekatu egiña, ta prest nago lenago galdutera bizitza ta gauza guztijak, ostera pekatu edo pekatuko bidetara biurtu baño.*

KOMUNIOE OSTERAKUA

O Jesus, gozotasun guztien ganetiko gozotasuna!
Zeñek bestek emon euskion nire biotzari onelako poz
ta bakia? + Orain, nire arimiak, kendurik pekatuben
astuntasuna, atseren dau zugar. + Bai edegi deutsez
atiak bere aitaren etxian, ta aurkitu ditu iñun ez lako
ondasun ta atsegiñak. + Ez naizu, bada, itxi Jesus ona,
ta ez zaitut itxiko. Lagun zakidaz igaro. daidan neure
bizitza guztija zure mesediak aztertu, ta eskerrak
emoten. *Bai, arren, bai.*

KOMUNIÑOERAKO PRESTAERIA

Komulgetara zuazanian, gomuntauko dozu astiro ta siniste bizi bategaz, zein andi ta altsuba dan artutera zuazan Jauna, + ta zein ezereza zu bere aurrian. + Gero, egingo dozu alegiña biztuteko zeure biotzian egarri ta goxe andi bat, zu diñu ez zarian, baña ain maitagarri eskintzen jatzun Jesus artuteko.

ERREGUBAK

O, Jaun andi, begiratubaz beste baga, zerubak ta lurrak ikaratuten dituzuzana! + Jaun andija neurri baga, baña nire errukiz azpiratu ta gelditu ziñana altarako mai santuban egiazko janari ta edari egiñik! + Ai, Jauna! Zelan azartuko nas ni zugana? + Baña, zelan azartuko ez nas, baldin zeuk deituten banozu? Ondo jakinik nire argaltasunak, orrekaitik billatzen banozu? + Banator Jauna, banator; bada, zer egin daiket zu baga? Zugan sendatu biar dau neure arima argal, erkin, ta kadenak. + Banator... Baña, Aingeru ederrak,

zatoze laster nigana, ta prestau egizube biotz errukarri onetan, zeuben Erregeri jaokan bizi lekuba. + Ai! ta biztu egizube nigan egarri andi bat, edan daidan ugari bere biotz garbiko iturri gozuan. +

KOMUNIOE OSTERAKO

Konsuninoeko mai santuban aurkituten dira ondatsun neurri bagak, baña bakotxak aterako dau prestariaren duiña. Konlunioe ostian irabazi deitekez ondatsun txito ugarijak, ta ez arren alperrik galdu era edo une zorijoneko au. Batu egizuz zenzun guztijak zeugaz daukazun jaubiagana, ta egizu alegin guztija, eskerrak emoten, mesediak eskatzen, biotz ta zarian guztija eskintzen, ta bera maitetuten. Egizu astiro au guztijau, arturik zeure laguntzat amarik gozo ta bigunena. Gauza negargarrija da, ikustia kristinaubak komulgau ta beriala etxera juaten, edo eleixan dagozala, albuetara begira, edo gogo otz ta epelagaz, gomutau bere baga nogaz aurkitzen diran, ta zer egin biar leuken! Gero beti beragaz izan gura dozun Jesusegaz, ez dozu orain igaroko gozaro ordu erditxu bat? O, itxutasuna! Baña ez dabe estutu biar emen, arako arima aleginez ondo prestaurik, ta borondate onagaz komunioe ostian astiro dagozanak begitandu arren, ez dabela ateraten mesederik komuninoetik, esetsi edo tentaziño, gogo illun, ta lior antzeko biotza euki dabelako. Eginik noberagan dana, ez da sari baga iñor geldituko.

Ez ditu Jesusek sari guztijak lurrian emoten. Euki ez arren samurtasun, ta gozotasunik, sarri irabazten dira gero beti gozo izango diran ondasunak.

ERREGUBAK

Beraz zu, Jesus zeñentzat ez diran eder asko zerubak eurak, etorri zara orain nire biotzeko etxe ez euki edo pobrera! + Ai ene! Ez da nire gorputza kartzela ustel bat, ta, nire arimia pekatuban sortuba? Ez nas ni, ain sarri zure igesi ibilli nasana, zure bidiak uts egin ditudana, ta ainbeste esker txar emon deutsudana? + Ta, au guztijau jakinik, zatoz nigana! + Zer egin daiket, bada, orain nire arimiak? zelan maitetu daiket biar legez, neure Jesus ona? + Zelan emon neijoz duñeko eskerrak? + Ai, eta baneuka orain Lagun edo esposa garbijaren biotz samurra betiko loturik gelditzeko neure Jesusegaz! + Zelako pozagaz esango neukian: *aurkitu dau nire arimiak billatzen ebana, ta ez da geijago beraganik aldenduko.* + Edo obato esateko: neuk billatu biar nebanak berak aurkitu nau. + Baña nok ezkotu daike nire arima liorra? Nok berotu nire biotz aiñ otza? Zuk, Jesus laztana. + Bai, zure eskuban dagoz Saulo ta Magdalenen biotzak. Ez zaite bada, aldendu niganik ixiotu ta dontsutu baga betiko nire arimia. + Ez egizu itxi bakarrik, negarrez, ta umezurtz egiñik. + Erre egidazuz su bero orregaz neure griña ta

gurari okerrak, izan zaitian zu nire arimako jaube ta maite bakarra. + Zeuk emon zeustan, ta aldendu bazan bere, zeuria zan ta zeugandu dozu: egijozu bada leku zeure biotz bero ta gozo orretan. + Poztu zaite nire arima geixua, poztu zaite; bada edegirik daukazu Jesusen biotza. + Sartu zaite bere barruban, ta aurkituko dozu biar ta gura dozun guztija. + Bertan daukazu garbitasuna, gauza onetarako azkortasuna, pekatu ta pekatuko biden gorrotua, bizitza onian irau-teko indarra, beraganako leialtasuna; ta berba baten, arako maitetasun bero, gatx guztijak kendu, ta on guztijak emoten ditubana. + Zerubak, ta luurra, kria-tura edo egin guztijakaz, lagun dekidazala beti eske-rrak emoten ainbeste ondasunen emolliari. + Alan izan dedilla.

KOMUNINOE GURARIZKO EDO ESPIRITUALA

Arimako Komuninoe edo espirituala esaten jakopa da, Sto. Tomasek diñuanek, Jesus Sakramentaduba edo ostian estalduba artuteko, au da, benetan komulgetako, gurari bizi bat. Sta. Katalina Senakori, ta beste askori agertu deutse Jesusek, mirari askogaz, zein ondasun andi ta ugarijak ateraten dituben arima garbijak gurarizko komuninoietatik. Oitu zaite, bada, garbiro ta sarri egiten. Imini bazituban Jesusek bere atsegiñak gugaz egotian, imini egizuz zuk bere zeure gurarijak beragaz batutian. Komuniñoek au egin deiteke egun bakotxian nai dan beste bidar, ta edozein lekutan, ta batez bere da txito ondo egitia Meza entzuten dan guztijan sazerdotia komulgetian. Iruditu zeu bere komulgau baziña legez. Prestaeratzat, ta gero eskerrak emoteko, artu daikezuz bestelako koinuninorako emon diran ikasbide ta erregubak.

**EGIERA EDO
EGITEKO MODU LABURRA**

O, Jesus laztana! Egarriz dago nire arimia, ta zure biotzeko ur gozuen gurariz. Baña ezin eldu neinde orain zu nire maitetasunak loturik zaukazan eskutapen edo Sakramentura. Egizu bada, zuk, nik egin gura neukiana. Erdu, bai, nire arimara, bada zuretzat bide guztijak dagoz edegijak. Erdu, Aingeruben atsegiña ta nire poz bakarra. Erdu neure egilla ta Jaubia, bada nai dot beti zugaz bizi, ta azkenik zugan ill. Alan jazo dedilla.

Gero eskerrak emon, benetan komulgauta legez.

SARRI KOMULGETIAREN GAÑIAN

Ondo ezaguturik, lelengo Kristinaubak, zelako ugaritasunagaz gelditu zan Jesus komuninoeko mai gozuan, artu eben zein gizon, zein emakumiak, egunoro komulgetako oitura. Jakitun ta erakusla guztijak emoten dabe txito ontzat oitura au, ta Eleixa ama santubak agertuten ditu barriztetako gurari bizijak. Ez da laburtu Jaunaren eskuba, ez otzitu bere guganako maitetasuna. Baña bai, zoritxarrian, kristinauben gose egarrija mai santu atarako. Orregaitik, gizaldi guztijetan, geijago edo gitxiago, egon dira ta dagoz kristinaubak, gizon ta emakumiak, egunoro komulgau ziranak, ta komulgetan diranak. Orain bere, Erroman bertan Aita Santubaren errijan Monja Zelestiak esaten jakenak komulgetan dira egunoro, ta gitxienez astian sei egunian, itxirik nos bait Astelena umiltasunez edo beste gauzaren bat gaitik; ta erri ta zitudade askotan dagoz egunoro komulgetan diranak, Obispo Jaun, ta arira jaolen poz andijagaz. Ez da liburu txikar onetarako aituten emotia, zelan prestau biar dan ain sarri komulgetako. Asko da esatia, aurkiturik konfesore

jakitun bat; berari obeiduteko. Berak jakingo dau ondo, mai santu onetako janarija dala argalak sendatu, ta senduak senduago egiteko. Begiraturik zeure lan, asti, griña, arimako moteltasun, edo azkortasunari, pekatu txikarretan iminten dozun ardura, edo ardurabagetasunari etc... erabagiko deutsu egin biar dozun. Obeidu, bada, konfesore jakitunari, nai egunoro, nai astian bein edo gitxiagotan agindu arren. Agintzen badeutsu sarri, ez orregaitik arrotu, bada izan deiteke zeure argaltasun andijagaitik. Gitxiagotan agintzen badeutsu, ez astundu ta mukertu, bada obeiduten dabenarentzat, beti dago edegirik Jesusen biotza, ta gurarizko komuninoiagaz aterako dituzu ondasun andijak. Baña, egin alegiña, nor beren aldetik, beti mai santu ta gozuaren egarri ta gose andi bat eukiteko.

Ikasi egizuz eriotzako orduban egiteko erregu onek, ta noixian bein egizuz, ordu atan ondo egin gura badituzuz.

Beraz, amaitu zan niretzat munduba! Beraz, bete zan nire munduko egun laburren neurrija! Bai. Agur munduba, ta agur betiko. Ai, eta nor bizi zatian etsigi

baga zugana! Nire arima gaixuak negar egiten dau orain Jangoikuaz ostian maitetu daben guztija. Ai, neube Jaube bakarra! Zuganik urten neban ta zugana biar dot. Baña zelan agertuko nas zure begi argi ta ederren aurrera? Eta zelan aztu izan nas ni iños, ziur nekijan egija onegaz? Eta zelan gozatu leite iñor lurreko gauzetara jakinik elduko dala egun au? Ai, eta nok adierazo leijan munduko lau bazterretan, zein argalak diran munduko gauzen irudijak, begijen aurrian erioztzia jarten dan unian! O, andi ta txiki, gizon guztioen zorra! Munduko erokerijen benetako azterlarija! Jangoikuagan baño bestegan atsegin ta bakiaren izpirik aurkitu ezin leijan unia! Gizonik zoratubenak mundubari begiratu gura ez deutesen tandia? Arimarik aaztubenak berekautan legez Jesusen onetan ezpanak ezarten dituben sanjia!... Jakiturijako benetako eskolia!... Ai, nire arimia! Aztu zaitez guztiz mundubagaz. Billatu egizuz laster zeruko bitarteko andijak ezarteko eurakaz Jesusen oñetan. O, Erregiña eder ta pekatarijen ama! Liortu dira nire ezpanak, ta moteldu nire miiña: begira nire biotzari, ta enzun egizuz esturasunik andijenian zizpuraz ta negarrez egiten deutesuzan eskabidiak... *Orain artu eskuban Santo Kristo bat, eta esan:* O, neure aita errukior ta maitia! nire poz ta atse-

gin bakarra! Ara emen arako zure seme galduba. Ara emen... Zure maitetasun ta biguntasunak nakar zure oñetara Magdalena baten gisan negar egitera neure pekatubak. Ai, zugaz aztuta, zure igesi igaro ditudan egunak! Ez arren zenbatu nire bizitza laburreko egunen artian. Ez ditiala inos liortu nire begijak euren gomuntiaz negar egitez. Eta zelan liortuko dira, baldin galdu bazendudazan zu ontasun guztien ontasuna, edertasun guztien edertasuna, egilla ta jaube bakarra, bizitza ta eriotzako atsegin osua? Zelan liortuko dira... Ai, eta nok leukian orain arima iños pekatuban orban-du edo loitu bagia! Baña, Jesus ona, ezarri egizu odol tanta bat nire arimara ta garbituko da guztija. Enzun egizuz, arnasa estu, neke gogor, biotz damutu, zizpuru ta negarrez egiten deutsudazan erregubak. Ezarri egidazu zure seme esleiduben silluba, ta artu nagizu orain, ta jaso betiko zorijonekuen artian. Bai, arren, bai.

LAUKO LABURRAK SOÑU ZALENTZAKO

Zelakua dan gure
Munduko bizitza,
Alantxe izango da
Gero eriotza.

Asko bizi oi dira
Munduban erorik,
Zerubak itxaroten
Nekatu bagarik.

Zenbat dagoz erretan
Infernu barruban,
Uste ebenak egon
Betiko Zeruban?

Zuri beste ainbeste
Jazoten bajatzu,
Belu ezagututa
Zer egingo dozu?

Zeure burutazinoe
Lagunen esanak,
Ai, zein zorigaistuan
Galdu zenduzenak!

Munduko ezti gozo
Poztu zenduzenak
Ez ditube izango
Azken atsegiñak.

Arimiagaz aztu
Bizi atsegiñez,
Zelan dozu ustia
Amaitzeko onez?

Jaunaren berbiari
Burla, edo gortu;
Beti sinisten dozu
Biguna billatu?

Jaun onak agindubak
Imini zituban
Gordetako, sartuko
Bagiñan Zeruban.

Bere berba andijak
Ez dau uts emongo,
Oraingo ixiltasuna
Dau bai igertuko.

Arako azkeneko
Egun axerrian
Agertuko da ondo
Guztien aurrian.

Ez da ez, an izango
Burla ta barrerik,
Ez munduko aldeko
Lagun pozgarririk.

Asko badira bere
Bide nasaikuak
Bardin artuko ditu
Epai betikuak.

Askoren gatx egiñak
Poztuten bazaitu,
Guztientzat lekuba

Izentaurik dozu.

Zer dira bere aurrian
Munduko gizonak
Guztihak izan arren,
Ez padira onak?

O, Jaun andi ta jaube
Beti betikua,
Egizu izan nadilla
Zure aldekua.

Ondo bizi nadilla.
Bai, ondo ilteko,
Betiko zerubetan
Zugaz izateko.

AZKENA